# Eusko Jaurlaritzaren Berrikuntza Publikoaren Plana

## 2011-2013

plan de innovación pública
berrikuntza publikoaren plana

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

– I. eranskina: Laburpen-fitxak –

## Aurkibidea

0.- Ildo estrategikoen ikuspegi orokorra
1.- 1. ildoa: Zerbitzu elektronikoak
2.- 2. ildoa: Administrazio elektronikoko plataforma
3.- 3. ildoa: Arauen egokitzapena
4.- 4. ildoa: Interneten egotea
5.- 5. ildoa: Herritarren arreta
6.- 6. ildoa: Gardentasuna eta parte-hartzea
7.- 7. ildoa: Administrazioen arteko lankidetza
8.- 8. ildoa: Berrikuntza eta ezagueraren kudeaketa
9.- 9. ildoa: Politika publikoen ebaluazioa
10.- 10. ildoa: Bikaintasuna kudeaketan
11.- 11. ildoa: Antolakuntza eta giza baliabideak
12.- 12. ildoa: Sistema korporatiboak
13.- 13. ildoa: Azpiegitura teknologikoa
14.- 14. ildoa: IT kudeaketa-eredua

# 0.- Ildo estrategikoen ikuspegi orokorra

Lau ardatz estrategikok eta hiru ildo estrategikok osatzen dute Eusko Jaurlaritzaren Berrikuntza Publikoaren Plana, honako taula honetan ikus daitekeenez:

| Ardatzak | ADMINISTRAZIO ELEKTRONIKOA | ADMINISTRAZIO IREKIA | ADMINISTRAZIO BERRITZAILEA | BERRIKUNTZA TEKNOLOGIKOA |
|---|---|---|---|---|
| Ildoak | o 1. ildoa: Zerbitzu elektronikoak<br>o 2. ildoa: Administrazio elektronikoko plataforma<br>o 3. ildoa: Arauen egokitzapena | o 4. ildoa: Interneten egotea<br>o 5. ildoa: Herritarren arreta<br>o 6. ildoa: Gardentasuna eta parte-hartzea<br>o 7. ildoa: Administrazioen arteko lankidetza | o 8. ildoa: Berrikuntza eta ezagueraren kudeaketa<br>o 9. ildoa: Politika publikoen ebaluazioa<br>o 10. ildoa: Bikaintasuna kudeaketan<br>o 11. ildoa: Antolakuntza eta giza baliabideak | o 12. ildoa: Sistema korporatiboak<br>o 13. ildoa: Azpiegitura teknologikoa<br>o 14. ildoa: IT kudeaketa-eredua |

14 ildo estrategikoak osatzen dituzten proiektu bakoitzerako laburpen-fitxa bat erantsi da agiri honetan.

# 1. ildoa: Zerbitzu elektronikoak

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

**1.1. Zerbitzuak digitalizatzeko plana**
1.2. Administrazio Elektronikoaren Kudeaketa Eredua
1.3. Administrazio Elektronikoaren inguruko komunikazio- eta trebakuntza-plana
1.4. Enpresen Ataria egin
1.5. Kontratazio elektronikoa bultzatzeko plana

## Helburuak

- Zerbitzuen % 100 herritarrekin interakzio elektroniko osoan (hau da, herritarrek eta enpresek informazio-trukaketa guztiak bide elektronikoetatik egin ahal izatea)
- Zerbitzuen % 60 izapide elektroniko osoan (hau da, kudeaketan lagundu eta espedienteei buruzko informazio guztia integratzeko aukera ematen duten aplikazio informatikoen bidez egitea Administrazioan egiten diren izapideak)
- Abian jarri 5 zerbitzu proaktibo (erabiltzailek eskatu gabe ere eskaintzen zaizkion zerbitzuak, zerbitzu elektronikoetan aurretik kargatutako datuen eskubideen ondorio direlako)

## Deskribapena:

Proiektu horren funtsa da Internet bidez, prozedurak eta zerbitzuak herritarren (herritarrak oro har, enpresak eta beste administrazio batzuk) eskura jartzea. Barruko eta zeharkako izapide eta zerbitzuak ere barne hartzen ditu, gainera.

Administrazioaren Zerbitzuen Katalogotik abiatuta, prozedurak eta zerbitzuak lehenesteko honako hauek hartuko dira kontuan:

- Prozedura eta zerbitzuak izapidetze-familien arabera sailkatu
- Helburu diren hartzaileen segmentuak zehaztu
- Soluzio estandarrak, segmentuaren eta familiaren arabera

Honako hauek dira proiektu horri ekinez lortuko diren onura nagusiak: zerbitzu elektronikoen eskaera handitzen laguntzea eta Zerbitzu Elektronikoen kudeaketan parte hartzen duten funtzionarioen produktibotasuna eta gogobetetasuna areagotzea

## Arduraduna:

- BAEZ (Berrikuntzaren eta Administrazio Elektronikoaren Zuzendaritza)
- EJIE

## Parte-hartzaileak:

EAEko Administrazio Orokorra eta beraren Erakunde Autonomoak

## Lanak burutzeko epea:

2011ko urtarriletik 2013ko abendura

1.1. Zerbitzuak digitalizatzeko plana
**1.2. Administrazio Elektronikoaren Kudeaketa Eredua**
1.3. Administrazio Elektronikoaren inguruko komunikazio- eta trebakuntza-plana
1.4. Enpresen Ataria egin
1.5. Kontratazio elektronikoa bultzatzeko plana

## Helburuak

- Zerbitzu elektronikoen erabiltzaileen gogobetetasuna areagotzea

## Deskribapena:

Administrazio Elektronikoaren kudeaketa hobetzea da proiektuaren helburua. Hiru esparrutan bideratuko da:

1. Antolaketa- eta eginkizun-eredu bat zehaztu, eta eredu horri eutsiko dioten antolakuntza-egiturak garatu:
   - Administrazio elektronikoaren antolakuntza eta eginkizunen gidaliburua
   - Administrazio elektronikoari eutsiko dion antolakuntza-egitura egokitu
2. Erabiltzaileek eskura dituzten zerbitzu elektronikoak neurtu, halakoen erabilera areagotu eta ezaguera partekatu:
   - Administrazio elektronikoaren adierazleak
   - Administrazio Elektronikoaren Behatokia
3. Zerbitzu elektronikoen eraginkortasuna hobetu eta, prozedurak erraztuz, eskaera handitu:
   - EEN (Elkarreragingarritasun Eskema Nazionala) betetzeko plana
   - Sinadura elektroniko aurreratuaren osagarriak izango diren autentikazio-sistemak aztertu

Honako hauek dira proiektuaren azpi-proiektuak:
1.2.1. Administrazio elektronikoaren antolakuntza eta eginkizunen gidaliburua egin
1.2.2. Administrazio elektronikoari eutsiko dion antolakuntza-egitura egokitu
1.2.3. Administrazio Elektronikoaren Behatokia
1.2.4. EEN (Elkarreragingarritasun Eskema Nazionala) betetzeko plana
1.2.5. Sinadura elektroniko aurreratuaren osagarriak izango diren autentikazio-sistemak aztertu

## Arduraduna:

- BAEZ
- EJIE

## Parte-hartzaileak:

EAEko Administrazio Orokorra eta beraren Erakunde Autonomoak

## Lanak burutzeko epea:

2011ko urtarriletik 2013ko abendura

1.1. Zerbitzuak digitalizatzeko plana
1.2. Administrazio Elektronikoaren Kudeaketa Eredua
**1.3. Administrazio Elektronikoaren inguruko komunikazio- eta trebakuntza-plana**
1.4. Enpresen Ataria egin
1.5. Kontratazio elektronikoa bultzatzeko plana


## Helburuak

- Zerbitzu elektronikoen erabilera areagotzea:
  - Herritarrek eskatutako izapideen % 20 bide elektronikoetatik izatea
  - Enpresek eskatutako izapideen % 60 bide elektronikoetatik izatea
- 2.700 lagun trebatzea administrazio elektronikoan eta berrikuntza publikoan

## Deskribapena:

Proiektu honen helburua da zerbitzu elektronikoen eskaintza eta erabilera areagotzea; horretarako, aldaketaren kudeaketari lagunduko dioten neurriak hartuko dira, bai zerbitzuen hornitzaileen alorrean, bai erabiltzaileen alorrean. Helburu hori lortzeko, ekimenen barruan jasota daude komunikazio-plan bat eta Administrazio Elektronikoan trebatzeko plan bat.

Eta, bi plan horiei laguntzeko, Administrazio Elektronikoan trebatzeko eta komunikatzeko edukiak lantzea proposatzen da. Eduki horiek pilulak txikiak izango dira eta, antzemandako premien arabera batuta, curriculum-ibilbide desberdinak egiteko aukera emango dute, berez edo pertsonek horixe eskatuta.

Honako hauek dira proiektuaren azpi-proiektuak :
1.3.1. Komunikazio- eta sentsibilizazio-plana Administrazio elektronikoan
1.3.2. Trebakuntza-plana Administrazio elektronikoan
1.3.3. Komunikazio- eta trebakuntza- edukiak diseinatu eta egin.
1.3.4. Ardura berriak ad hoc sortu (e-administrazioa eta zeharkako prozesuak).
1.3.5. Administrazio elektronikoari eta berrikuntzari lotutako zeharkako trebakuntza.

## Arduraduna:

- HAEE
- Funtzio publikoa
- BAEZ
- HAZ (Herritarrei Arreta emateko Zuzendaritza)
- EJIE

## Parte-hartzaileak:

EAEko Administrazio Orokorra eta beraren Erakunde Autonomoak

## Lanak burutzeko epea:

2011ko urtarriletik 2013ko abendura

1.1. Zerbitzuak digitalizatzeko plana
1.2. Administrazio Elektronikoaren Kudeaketa Eredua
1.3. Administrazio Elektronikoaren inguruko komunikazio- eta trebakuntza-plana
**1.4. Enpresen Ataria egin**
1.5. Kontratazio elektronikoa bultzatzeko plana

## Helburuak

- Enpresei zuzendutako atari bat edukitzea, haientzat balio erantsi handia duten eduki eta funtzionalitateekin
- Atari berrirako kudeaketa-protokoloa ezartzea

## Deskribapena:

Enpresen ataria garatu, eta topagune eta informaziogune bihurtzea da proiektu honen helburua, horren bidez, enpresek Administrazioarekin dituzten izapideak errazteko asmoz.

Hasiera batean, honako honi lotuta egongo da Enpresen Atarian bilduko den informazioa:
•Enpresetarako berariazko zerbitzu elektronikoak
•Kontratatzailearen profila
•Enpresen erregistroak
•Lehiaketa eta kontratazioei buruzko informazioa
•Izapide berriei, berrikuntzari, zerbitzuak erabiltzeko gidari, administrazio-kargen murrizketari eta abarri buruzko informazio-edukiak.
•Faktura Elektronikoa

Honako hauek dira proiektuaren azpi-proiektuak:
1.4.1. Ataria egin
1.4.2. Enpresa-erregistroen koordinazioa

## Arduraduna:

- Justizia eta Herri Administrazio Saila
- BAEZ

## Parte-hartzaileak:

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoa

## Lanak burutzeko epea:

2011ko otsailetik 2012ko ekainera

# 01.- Zerbitzu elektronikoak


1.1. Zerbitzuak digitalizatzeko plana
1.2. Administrazio Elektronikoaren Kudeaketa Eredua
1.3. Administrazio Elektronikoaren inguruko komunikazio- eta trebakuntza-plana
1.4. Enpresen Ataria egin
**1.5. Kontratazio elektronikoa bultzatzeko plana**


## Helburuak

- Lizitazio publikoaren % 100 era telematikoan egitea lortzea.
- Lizitazioen % 50 Internet bidez egitea lortzea.

## Deskribapena:

Kontratazio elektronikoa sustatzeko plan bat diseinatu eta hedatzen laguntzea da proiektuaren asmoa. Horretarako, honako metodologia hau proposatzen da:

- Aldaketaren kudeaketa eta trebakuntza, proiektuaren testuinguruan: euskarri-prozesu berriei eta prestazio-mota eta harreman-bide berriei aurre egiteko gaitasun berriak, langileak sustatu eta mugiarazteko bideak…
- Euskarri-prozesuaren definizioa (zerbitzu-kalitatea, laguntza teknikoa, artikulazioa, etab.)
- Proiektua ezagutzera emateko plana
- Proiektua hedatzeko plana: fase pilotuetatik hasi eta behin betiko gauzatzera arte.
- Lizitazio elektronikoaren elementu arautzaileen azterketa
- Lizitazio elektronikoaren erabilera barnean sustatu
- Enpresentzako lizitazio elektronikoa sustatzeko mekanismoak identifikatu

## Arduraduna:

- Justizia eta Herri Administrazio Saila
- BAEZ

## Parte-hartzaileak:

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoa

## Lanak burutzeko epea:

2011ko urtarriletik 2013ko abendura

# 2. ildoa: Administrazio elektronikoko plataforma

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

# 0.2- Administrazio elektronikoko plataforma


**2.1. Administrazio elektronikoko plataformaren bilakaera teknologikoa**
2.2. Administrazio elektronikoko plataformaren bilakaera funtzionala
2.3. DOKUSIren bilakaera funtzionala
2.4. DOKUSIren bilakaera teknikoa
2.5. Papera haren baliokide elektronikoarekin ordezteko mekanismo eta prozesuak
2.6. Dokumentu elektronikoen zaintza eta kontserbazioa bermatzeko prozesuak
2.7. PLATEA Interneten bilakaera
2.8. Atebideak finantza-erakundeekin
2.9. Zuzenean plataformaren bilakaera: herritarren arreta


## Helburuak

- Tresnen migrazioa, ikuspuntu teknologikotik
- PLATEAren errendimendua hobetzea
- PLATEAren egonkortasuna hobetzea
- Azpiegituraren eskalagarritasuna ziurtatzea
- Tresna teknologiko zaharkituak baztertzea
- Sistemaren errendimendua eta eskalagarritasuna ziurtatzea
- Eusko Jaurlaritzako Sail guztietan Papera Digitalizatzeko proiektua ezartzeko bilakaera funtzionala
- "Sicres 3.0." Administrazioen arteko erregistro-trukaketen automatizazioa barneratzea

## Deskribapena:

Proiektuaren eginkizuna da, alde batetik, "Platea Izapidetzea" Azpiegituraren eguneratze teknologikoa eta, beste alde batetik, Sarrera/Irteerako Erregistroaren aplikazioaren bilakaera teknologikoa.

Espediente-kopuru handia barneratzen ari da gaur egungo azpiegitura operatiboa. Horregatik, tresna teknologiko berriagoz hornitu behar dugu azpiegitura hori, aplikazioak era masiboan sartzen direnean, horiei eutsi eta sarrera errazteko eta, aldi berean, gaur egun bertan dauden zerbitzuak bermatzeko.

Gainera, bilakaera teknologikoari esker, ziur ekin ahal izango diogu azpiegituraren etorkizuneko bilakaera funtzionalari, erabilgarritasunaren alorrean planteatutako hobekuntzei dagokienez, batik bat.

Zentzu horretan, Eusko Jaurlaritzaren Sarrera/Irteeren Erregistroaren soluzioari tresna teknologiko berriagoak eranstea ahalbidetuko du. Administrazio Elektronikoaren Kontseilu Gorenaren Sicres 3.0 arau berria barneratzeko behar diren oinarriak finkatzen ditu migrazio teknologikoak. Era osagarrian, Sarrera/Irteeren erregistroaren plataforma berriak egokiago eutsiko die "zero paper" (paperaren digitalizazioa) ekimenaren ondorioz sortuko diren egoera funtzional berriei.

Honako hauek dira proiektuaren azpi-proiektuak:
2.1.1. "Platea Izapidetzearen" bilakaera teknologikoa
2.1.2. Sarrera/Irteeren Erregistroaren bilakaera teknologikoa

## Arduraduna:

Herri Administrazio Sailburuordetza
Azpiegitura-proiektu bateratuak (izapidetzea)

## Parte-hartzaileak:

EJIE sistemak

## Lanak burutzeko epea:

2011ko urtarriletik 2013ko abendura

# 0.2- Administrazio elektronikoko plataforma

2.1. Administrazio elektronikoko plataformaren bilakaera teknologikoa
**2.2. Administrazio elektronikoko plataformaren bilakaera funtzionala**
2.3. DOKUSIren bilakaera funtzionala
2.4. DOKUSIren bilakaera teknikoa
2.5. Papera haren baliokide elektronikoarekin ordezteko mekanismo eta prozesuak
2.6. Dokumentu elektronikoen zaintza eta kontserbazioa bermatzeko prozesuak
2.7. PLATEA Interneten bilakaera
2.8. Atebideak finantza-erakundeekin
2.9. Zuzenean plataformaren bilakaera: herritarren arreta

## Helburuak

- PLATEAren azpiegituraren bilakaerari eustea. Funtzionalitatea barneratu eta horri eustea
- Segurtasuneko Eskema Nazionala betetzea
- EEN (Elkarreragingarritasun Eskema Nazionala) betetzea
- Eusko Jaurlaritzaren EIT baliabideei buruzko Dekretuari egokitzea
- Barne-erabilgarritasuna hobetzea (Eusko Jaurlaritzako barruko erabiltzaileak)
- Kanpo-erabilgarritasuna hobetzea (Eusko Jaurlaritzatik kanpoko erabiltzaileak: herritarrak eta enpresak)
- Erabilgarritasun teknikoa hobetzea (erabiltzaile teknikoak eta garatzaileak)

## Deskribapena:

Proiektu honen eginkizuna zera da: Eusko Jaurlaritzaren Administrazio Elektronikoko Plataformaren (PLATEA) bilakaera eta hobekuntza, azpiegitura gisa eskaintzen duen erabilgarritasunari eta funtzionaltasunari dagokionez; horretarako, erabiltzaileen interfazeen bilakaera proposatzen da.
Interfaze lagungarriagoak, errazagoak eta, batik bat, intuitiboagoak lortu nahi dira, PLATEA erabil lezaketen erabiltzaile-kolektiboei erabilera errazteko asmoz. Era berean, dagoeneko ezarrita dauden funtzionalitateak hobetu baina, batez ere, funtzionalitate berriak ezarri nahi dira, plataforma indartu eta gaur egun dituen aukeren eskaintza zabaltzeko asmoz.

Honako hauek dira proiektuaren azpi-proiektuak:
2.2.1. Administrazio elektronikoaren araudiari egokitu “PLATEA Izapidetzea”
2.2.2. “Platea Izapidetzeari” funtzionalitate berriak erantsi
2.2.3. “Platea Izapidetzearen” funtzionalitateen bilakaera
2.2.4. Erabilgarritasunaren bilakaera eta hobekuntza

## Arduraduna:

Azpiegitura-proiektu bateratuak (izapidetzea)

## Parte-hartzaileak:

Sistemak, DOKUSI, IZENPE, EJIE

## Lanak burutzeko epea:

2011ko urtarriletik 2013ko abendura

# 0.2- Administrazio elektronikoko plataforma


2.1. Administrazio elektronikoko plataformaren bilakaera teknologikoa
2.2. Administrazio elektronikoko plataformaren bilakaera funtzionala
2.3. DOKUSIren bilakaera funtzionala
2.4. DOKUSIren bilakaera teknikoa
2.5. Papera haren baliokide elektronikoarekin ordezteko mekanismo eta prozesuak
2.6. Dokumentu elektronikoen zaintza eta kontserbazioa bermatzeko prozesuak
2.7. PLATEA Interneten bilakaera
2.8. Atebideak finantza-erakundeekin
2.9. Zuzenean plataformaren bilakaera: herritarren arreta


## Helburuak

- Dokusi eta beste informazio-sistemen arteko integrazioa hobetzea
- Berari lotutako araudiaren aurrerakuntzei egokitzea Dokusiren funtzionalitateak.
- Dokusiri funtzionalitate berriak eranstea.
  - Mugikorraren bidez dokumentuak baliozkotzea.
  - Dokumentu-zerbitzu asinkronoak
  - Memoria-mailak eta egitura optimizatzea
  - Besterik…
- AKS/SGA artxiboaren kudeaketa-sistemaren bilakaera.

## Deskribapena:

Dokusiren bilakaera funtzionalean hainbat azpi-proiektu daude, eta horien eginkizun orokorra da Dokusik eskaintzen dituen funtzionalitateak hobetu eta garatzea. Indartuko diren alderdien artean dago, besteak beste, erabiltzaileek sistema errazago erabiltzea. Era berean, garrantzitsutzat jotzen da EJIEren esparruaren barruan sistemak homogeneizatzearen ikuspuntutik.

Honako azpi-proiektu hauek ditu proiektuak:
2.3.1. Beste informazio-sistema batzuekin integratu
2.3.2. Araudien eskakizunei egokitu, eta araudiaren bilakaerari egokitzeko aholkularitza
2.3.3. Dokusiri modulu berriak erantsi
2.3.4. AKS/SGA artxiboaren kudeaketa-sistemaren bilakaera
2.3.5. Beste bilakaera funtzional batzuk

## Arduraduna:

Herri Administrazio Sailburuordetza
Azpiegitura proiektu bateratuak (dokumentu-kudeaketa)

## Parte-hartzaileak:

- EJ: BAEZ, ITZ, HAZ, BOZ.
- EJIE: PLTZ, STZ, PZ.

## Lanak burutzeko epea:

2011ko urtarriletik 2013ko abendura

# 0.2- Administrazio elektronikoko plataforma

2.1. Administrazio elektronikoko plataformaren bilakaera teknologikoa
2.2. Administrazio elektronikoko plataformaren bilakaera funtzionala
2.3. DOKUSIren bilakaera funtzionala
**2.4. DOKUSIren bilakaera teknikoa**
2.5. Papera haren baliokide elektronikoarekin ordezteko mekanismo eta prozesuak
2.6. Dokumentu elektronikoen zaintza eta kontserbazioa bermatzeko prozesuak
2.7. PLATEA Interneten bilakaera
2.8. Atebideak finantza-erakundeekin
2.9. Zuzenean plataformaren bilakaera: herritarren arreta

## Helburuak

- Dokusi-ren stress-probak
- Garapenean kalitatea bermatzea
- Sistemaren monitorizazio orokorra
- Backup prozesua hobetzea
- ECM softwarearen prestazio guztiak aprobetxatzea

## Deskribapena:

Proiektu honetan, Dokusiren etengabeko bilakaera- eta hobekuntza-prozesuan antzeman daitezkeen hobekuntza teknikoak aztertu eta garatuko dira.
Proiektuaren onuretako bat zera da: Dokusik zerbitzu-maila ezin hobea izango duela ziurtatzea

Honako azpi-proiektu hauek ditu proiektuak:
2.4.1. Dokusiren errendimendua hobetu, eta garapena eta kalitatea bermatu.
2.4.2. ECM tresnaren bertsio berriaren prestazioak aprobetxatu.

## Arduraduna:

Herri Administrazio Sailburuordetza

EJIE dokumentu-kudeaketa

## Parte-hartzaileak:

- EJ: BAEZ, ITZ, HAZ, BOZ.
- EJIE: PLTZ, STZ, PZ.

## Lanak burutzeko epea:

2011ko urtarriletik 2012ko otsailera

# 0.2- Administrazio elektronikoko plataforma

2.1. Administrazio elektronikoko plataformaren bilakaera teknologikoa
2.2. Administrazio elektronikoko plataformaren bilakaera funtzionala
2.3. DOKUSIren bilakaera funtzionala
2.4. DOKUSIren bilakaera teknikoa
**2.5. Papera haren baliokide elektronikoarekin ordezteko mekanismo eta prozesuak**
2.6. Dokumentu elektronikoen zaintza eta kontserbazioa bermatzeko prozesuak
2.7. PLATEA Interneten bilakaera
2.8. Atebideak finantza-erakundeekin
2.9. Zuzenean plataformaren bilakaera: herritarren arreta

## Helburuak

- Digitalizatze ziurrak egitea ahalbidetuko duen softwarea garatzea, halakorik behar lezaketen sistemetan
- Erregistroan dokumentuen digitalizatzea automatizatzeko bideak aztertu eta ezartzea
- Hala nahi duten artxibategi-funtsetan, paperaren ordez era ziurrean digitalizatutako dokumentuak erabiltzea
- Dokusiren erabiltzaileak laguntzea, Dokusin sartu nahi dituzten paperezko dokumentuak digitalizatzeko proiektuak zehazteko prozesuan
- Eusko Jaurlaritzaren etorkizuneko digitalizatze-zentroa ustiatu eta kudeatzea

## Deskribapena:

Administrazio-izapideetan, papera haren baliokide elektronikoekin ordeztea ahalbidetuko duten bideak aztertu, diseinatu eta garatzea da proiektu honen eginkizuna. Hori burutzeko, abian jarriko dira dokumentuak digitalizatzeko eta gaur egun dauden digitalizatze-prozesuak optimizatzeko ekimenak.

Honako azpi-proiektu hauek ditu proiektuak:
2.5.1. Prozesua diseinatu eta digitalizatze ziurrerako osagaia garatu.
2.5.2. Dokumentuak erregistroan digitalizatu.
2.5.3. Artxibategiko funtsak digitalizatu.
2.5.4. Sailetako dokumentuak digitalizatzeko aholkularitza-zerbitzua.
2.5.5. Eusko Jaurlaritzaren digitalizatze-zentrorako digitalizatze-tresnak aztertu.
2.5.6. Eusko Jaurlaritzaren Digitalizatze Zentroa ustiatu.

## Arduraduna:

Herri Administrazioko Sailburuordetza

EJIE (dokumentu-kudeaketa)

## Parte-hartzaileak:

- EJ: BAEZ, ITZ, HAZ, BOZ.
- EJIE: PLTZ, STZ, PZ.

## Lanak burutzeko epea:

2011ko urtarriletik 2013ko abendura

# 0.2- Administrazio elektronikoko plataforma


2.1. Administrazio elektronikoko plataformaren bilakaera teknologikoa
2.2. Administrazio elektronikoko plataformaren bilakaera funtzionala
2.3. DOKUSIren bilakaera funtzionala
2.4. DOKUSIren bilakaera teknikoa
2.5. Papera haren baliokide elektronikoarekin ordezteko mekanismo eta prozesuak
2.6. Dokumentu elektronikoen zaintza eta kontserbazioa bermatzeko prozesuak
2.7. PLATEA Interneten bilakaera
2.8. Atebideak finantza-erakundeekin
2.9. Zuzenean plataformaren bilakaera: herritarren arreta


## Helburuak

- Dokusin bildutako dokumentuak zuzen zaindu eta kontserbatuko direla ziurtatzea.
- Mekanismo eta automatismo egokiak ezartzea.
- Dokumentuak ziur bildu eta zaintzeko, WORM sistemen bideragarritasuna aztertzea.
- WORM erako soluzioak ezartzea.

## Deskribapena:

Dokusiren esku utzitako edukiak denboran egoki zaindu eta kontserbatuko direla ziurtatuko duten mekanismoak aztertu, diseinatu eta garatzea da proiektu honen helburua.

Honako hauek dira proiektuaren onura nagusiak:
•Dokusin utzitako dokumentuak egoki zaindu eta gordeko direla bermatzea, horretarako baliabide egokiak erabiliz.
•Kostuak aurreztea, kontsulta-maila baxua duten dokumentuen kasuan biltzeko baliabide merkeagoak ezarriko direlako.

Honako azpi-proiektu hauek ditu proiektuak:
2.6.1. Epe luzean kontserbatzeko bideak ezarri.
2.6.2. WORM erako biltegiratzea

## Arduraduna:

Herri Administrazioko Sailburuordetza

EJIE (dokumentu-kudeaketa)

## Parte-hartzaileak:

- EJ: BAEZ, ITZ, HAZ, BOZ.
- EJIE: PLTZ, STZ, PZ.

## Lanak burutzeko epea:

2011ko urtarriletik 2012ko otsailera

# 0.2- Administrazio elektronikoko plataforma


2.1. Administrazio elektronikoko plataformaren bilakaera teknologikoa
2.2. Administrazio elektronikoko plataformaren bilakaera funtzionala
2.3. DOKUSIren bilakaera funtzionala
2.4. DOKUSIren bilakaera teknikoa
2.5. Papera haren baliokide elektronikoarekin ordezteko mekanismo eta prozesuak
2.6. Dokumentu elektronikoen zaintza eta kontserbazioa bermatzeko prozesuak
**2.7. PLATEA Interneten bilakaera**
2.8. Atebideak finantza-erakundeekin
2.9. Zuzenean plataformaren bilakaera: herritarren arreta


## Helburuak

- Tresna arrunten eta edukiak kudeatzeko tresnen erabilgarritasuna hobetzea.
- Edukien kudeatzaileen, atarien, katalogazio-etiketen, bilatzaileen eta abarren negozio-nukleoen eguneratze teknologikoa egitea.
- Euskadi.net-en bilaketak hobetzea.
- Euskadi.net-eko edukien ahalmen multimedia hobetzea.
- Euskadi.net-en edukien kalitatea hobetzea.
- Euskadi.net-eko atari-sarearen arkitektura, diseinua, funtzionaltasuna, etab. berrikustea, Eusko Jaurlaritzaren eta beste Herri Erakundeen edukiak eta zerbitzuak errazago eskuratzeko.

## Deskribapena:

Interneten PLATEAri eusten dioten tresna guztien eta, azken batean, esparru teknologiko osoaren bilakaera funtzional eta teknikoa izan nahi du proiektu honek. Asmoa zera da: tresnak berriz diseinatzea, arkitektura garatzea, atarien kalitatearen pareko alderdiei beste orientazio bat ematea, eta edukien esparruan funtsezkoak diren tresnak, hala nola bilaketa-tresnak, indartzea. Proiektuak hainbat azpi-proiektu ditu eta, osotasunean, gutxienez bi urte beharko ditu burutzeko.

Honako hauek dira proiektuaren azpi-proiektuak:
2.7.1. Erabiltzaile arrunten interfazeak hobetu
2.7.2. Platea Internet-en azpiegitura hobetu
2.7.3. Euskadi.net-en kalitatea hobetu:  argitalpenen kudeaketarako sistema bertikalak
2.7.4. Euskadi.net-en kalitatea hobetu: web-ak berrantolatu
2.7.5. Bermeak: egoitza elektronikoa eta argitaratu egin dela jasota gelditzea
2.7.6. Herritarren interakzioa: front-end - Euskadi.net 2.0
2.7.7. Opendata: bilakaera
2.7.8. Opendata: funtzionalitate semantikoak

## Arduraduna:

HAZ
Azpiegitura-proiektu bateratuak (Internet)

## Parte-hartzaileak:

- Herritarrei Arreta emateko Zuzendaritzako (HAZ) Web Kudeaketako Zerbitzua (SGW)
- Herritarrei Arreta emateko Zuzendaritza (HAZ)
- EJIE sistemak

## Lanak burutzeko epea:

2011ko urtarriletik 2013ko abendura

# 0.2- Administrazio elektronikoko plataforma


2.1. Administrazio elektronikoko plataformaren bilakaera teknologikoa
2.2. Administrazio elektronikoko plataformaren bilakaera funtzionala
2.3. DOKUSIren bilakaera funtzionala
2.4. DOKUSIren bilakaera teknikoa
2.5. Papera haren baliokide elektronikoarekin ordezteko mekanismo eta prozesuak
2.6. Dokumentu elektronikoen zaintza eta kontserbazioa bermatzeko prozesuak
2.7. PLATEA Interneten bilakaera
**2.8. Atebideak finantza-erakundeekin**
2.9. Zuzenean plataformaren bilakaera: herritarren arreta


## Helburuak

- Finantza-erakundeekin funtzionamendu-esparru bat zehaztea, berme-administrazioa laga eta aurkezteko
- Finantza-erakundeekin atebide bat osatzea, bermeen esparruan elkarrekin aritzeko
- Hirugarren batek kontu baten baliozkotzea /titulartasun-egiaztagiria / kotitulartasuna egin ahal izatea
- “Hirugarrenen izena ematea” prozedura digitalizatzea
- Bilakaera teknologikoa egitea

## Deskribapena:

Finantza-erakundeekin atebideak egiteko proiektuaren asmoa zera da: PLATEA eta Finantza-erakundeen artean elkarreragingarritasuneko zerbitzu-kopurua handitzea, aurretik bertaratzea eskatzen zuten administrazio-prozedurak digitalizatzeko asmoz (kontu baten titulartasuna egiaztatzea, berme telematikoak, etab.). Bestalde, azpiegitura teknologikoa ere garatu nahi da.

Honako hauek dira proiektuaren azpi-proiektuak:
2.8.1. Ordainketa-atebidearen bilakaera funtzionala
2.8.2. Berme Telematikoen atebidea
2.8.3. Hirugarrenen Erregistroak jasoko dituen atebidea

## Arduraduna:

BAEZ

Azpiegitura-proiektu bateratuak (Internet)

## Parte-hartzaileak:

- EJIE sistemak
- Berrikuntza eta administrazio elektronikoko Zuzendaritza

## Lanak burutzeko epea:

2011ko urtarriletik 2011ko abendura

# 0.2- Administrazio elektronikoko plataforma

2.1. Administrazio elektronikoko plataformaren bilakaera teknologikoa
2.2. Administrazio elektronikoko plataformaren bilakaera funtzionala
2.3. DOKUSIren bilakaera funtzionala
2.4. DOKUSIren bilakaera teknikoa
2.5. Papera haren baliokide elektronikoarekin ordezteko mekanismo eta prozesuak
2.6. Dokumentu elektronikoen zaintza eta kontserbazioa bermatzeko prozesuak
2.7. PLATEA Interneten bilakaera
2.8. Atebideak finantza-erakundeekin
2.9. **Zuzenean plataformaren bilakaera: herritarren arreta**

## Helburuak

- Web-kanaletik herritarrekin interakzioa kudeatzeko, Eusko Jaurlaritza osoarentzako antolakuntza-eredu horizontala zehaztea
- Aurreko antolakuntza-ereduari eutsiko dion tresna eraikitzea
- Zuzenean-en datuak eskuratu eta kudeaketa-informazioa egiteko eredu bat zehaztea.

## Deskribapena:

Teknologiaren bilakaeraren eta hobekuntzaren bidez, herritarren interakzioaren kudeaketa hobetzea da Zuzenean proiektuaren eginkizuna. Gainera, Eusko Jaurlaritza osorako oinarriak finkatu nahi ditu, herritarren interakziorako eredu bat zehaztuz.

Herritarrei dagokienez, informazioaren kudeaketa hobetzea ere bada eginkizunetako bat. Horretarako, txosten-tipoak zehaztu eta informazioa atera eta kudeatzea ahalbidetuko duten tresnak garatuko ditu.

Honako hauek dira proiektuaren azpi-proiektuak:
2.9.1. Herritarren Interakzioaren Kudeaketa
2.9.2. Zuzenean Zerbitzuaren Kudeaketa Txostenak

## Arduraduna:

HAZ

Azpiegitura-proiektu erkideak (Internet)

## Parte-hartzaileak:

Herritarrei Arreta emateko Zuzendaritza (HAZ)

## Lanak burutzeko epea:

2011ko urtarriletik 2012ko ekainera

# 3. ildoa: Arauen egokitzapena

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

## 3.1. Administrazio elektronikoari buruzko araudiaren bilakaera

## Helburuak

- Euskal Autonomia Erkidegoa Administrazio Elektronikoaren eta Berrikuntzaren erreferentzia bihurtzea.
- Administrazio-izapideetan, baliabide elektronikoen erabilpena sustatzea.
- Administrazioen arteko lankidetza eta elkarreragingarritasuna bultzatzea.
- Herritarrek Administrazio Publikoarekin dituzten harremanetan, haien eskubideak bermatu eta zorrotz errespetatzea.

## Deskribapena:

Proiektuaren asmoa zera da: asmo handiko araudi-garapenari ekitea, Euskal Autonomia Erkidegoa guztiz egokituta egon dadin Herritarrek Zerbitzu Publikoa baliabide Elektronikoz eskuratzeari buruzko 11/2007ko Legeak ezarritakoari. Horrela, Administrazio Elektronikoaren alorreko erreferentzia bihurtu eta Eusko Jaurlaritzaren estrategiak inspiratutako balioak transmitituko zaizkie herritarrei: berrikuntza, gardentasuna, eraginkortasuna eta herritarren gogobetetasuna.

Araudiaren garapenak administrazio elektroniko alorreko arautze osoa ekarri eta, ziurrenik, paraleloan hainbat jarduera-eremu zehatzago garatzea eskatuko du, horrela, etorkizuneko Dekretuak herritarrei aitortuko dizkien eskubideak benetan eta eraginkortasunez garatzeko.

Araudiaren garapenak administrazio elektroniko alorreko arautze osoa ekarri eta, ziurrenik, paraleloan hainbat jarduera-eremu zehatzago garatzea eskatuko du, horrela, etorkizuneko Dekretuak herritarrei aitortuko dizkien eskubideak benetan eta eraginkortasunez garatzeko.

Honako hauek dira proiektuaren azpi-proiektuak:
3.1.1. 11/2007 Legearen xedapenei egokituko zaien Dekretua garatu
3.1.2. Araudiaren garapen osagarriak

## Arduraduna:

Justizia eta Herri Administrazio Saila - BAEZ (zerbitzu juridikoak)

## Parte-hartzaileak:

- BAEZ
- EJIE
- Izenpe

## Lanak burutzeko epea:

2011ko urtarriletik 2011ko abendura

# 4. ildoa: Interneten egotea

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

**4.1. Egoitza Elektronikoa sortu**
4.2. Interneten egoteko eredu berri bat zehaztu eta abian jarri
4.3. Intraneten bertsio berri bat diseinatu eta abian jarri

## Helburuak

- Eusko Jaurlaritzaren Egoitza Elektronikoa sortzea
- Zerbitzu Elektronikoak kudeatzeko protokolo bat ezartzea

## Deskribapena:

Eusko Jaurlaritzaren Egoitza Berria sortu, honela definituta: herritarren eskura jartzen diren informazio eta zerbitzu elektroniko guztietarako sarbidea izango den helbide elektronikoa.

Proiektua zehaztu den moduan, Egoitza izango da Eusko Jaurlaritzaren Zerbitzu Elektroniko guztiak oinarrituko diren ardatz nagusia.

Egoitza Elektroniko batek elementu-. funtzionalitate- eta informazio-multzo bat dauka, kasu batzuetan indarrean dagoen araudiak halaxe eskatuta eta, beti ere, herritarrari ahalik eta zerbitzu hoberena emateko asmoz; beraz, proiektua ez da soilik egoitza bera sortzea eta bai, aldiz, funtzionalitateak sortzea, dauden plataformak integratzea, etab. Gainera, kontuan hartuko da Egoitza elikatuko duten Zerbitzu Elektronikoak kudeatzeko eredua, beti ere zerbitzu horiei lotuta.

Honako hauek dira proiektuaren azpi-proiektuak:
4.1.1. Egoitza sortu
4.1.2. Aholkularitza elektronikoko zerbitzua abian jarri
4.1.2. Aholkularitza elektronikoko zerbitzuaren jarduna
4.1.3. Bertaratze elektronikoa ezarri
4.1.4. Ezarpena eta Integrazioa
4.1.5. Kudeaketa Protokoloa

## Arduraduna:

Justizia eta Herri Administrazio Saila - HAZ

## Parte-hartzaileak:

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoa

## Lanak burutzeko epea:

2011ko otsailetik 2013ko abendura

4.1. Egoitza Elektronikoa sortu
4.2. Interneten egoteko eredu berri bat zehaztu eta abian jarri
4.3. Intraneten bertsio berri bat diseinatu eta abian jarri

## Helburuak

- Interneten egoteko ereduaren bilakaera; erraztasuna eta erabilgarritasuna izango dira hori egiteko irizpideak
- Herritarraren erabiltzaile-esperientzia hobetuko duten tresnak abian jartzea
- Antolakuntza-egitura eta kudeaketa-eredu berri bat zehaztea, modelo berri horri egokitzeko
- Web 2.0 tresnak dituzten atariak % 50 izan daitezen lortzea
- 10etik 7ko gogobetetasun-maila lortzea Euskadi.net-en erabiltzaileen artean

## Deskribapena:

Interneten egoteko eredua finkatzerakoan, indarra jarri nahi da Euskadi.net-eko atari guztiak berriro antolatzean, atariei eusteko antolakuntza-eskema berrikustean, web 2.0 elementuak eranstean eta, oro har, erabilgarritasuna hobetu eta Gobernu Irekiaren estrategia orokorrarekin bat egitean.

Honako hauek dira proiektuaren azpi-proiektuak:
4.2.1. Atariak berrantolatu
4.2.2. Identifikazio-eskema berria diseinatu eta abian jarri
4.2.3. Interneten Egoteko elementu bateratuak erabiltzeko eta kudeatzeko jarraibideak
4.2.4. Atarietan Web 2.0 tresnak abian jarri
4.2.5. Antolakuntza Eredua egokitu
4.2.6. Erabilgarritasun- eta Eskuragarritasun-plana
4.2.7. Sartzeko eta erabiltzeko metrikoak identifikatu eta horien jarraipena egin
4.2.8. Edukiak eta erabiltzailearen esperientzia hobetu
4.2.9. Argitalpen Elektronikoa
4.2.10. Euskadi.net-ean eduki berria erantsi

## Arduraduna:

Justizia eta Herri Administrazio Saila - HAZ

## Parte-hartzaileak:

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoa

## Lanak burutzeko epea:

2011ko urtarriletik 2013ko abendura

# 04.- Interneten egotea

4.1. Egoitza Elektronikoa sortu
4.2. Interneten egoteko eredu berri bat zehaztu eta abian jarri
4.3. Intraneten bertsio berri bat diseinatu eta abian jarri

## Helburuak

- Intranet-eredu berri bat, Eusko Jaurlaritzako langileentzat balio erantsi handiagoa izango duten funtzionalitate zehatz eta operatiboekin
- Intranet-eredu berriari egokitutako kudeaketa-protokolo berria
- Elkarlaneko tresna berri baten 2.000 erabiltzaile lortzea

## Deskribapena:

Eusko Jaurlaritzari balio erantsi handiagoa emango dion eta gaur egungo gobernuaren estrategiarekin bat etorriko den Intranet bat sortzea. Intranet tresna berriak elkarlaneko tresna garrantzitsuak izango ditu, eta ingurunearen aldaketei egokitzeko malgutasuna emango dioten tresna eta funtzionalitateak izan beharko ditu, bai barrura begira (telelana...), bai kanpora begira (teknologia berriak, mugikorra...). Horrez gain, Intranet berriak bat etorri beharko du Euskadi.net-en baitan dagoen estrategiarekin.

Aplikazioak eta eguneroko lana

- Prestakuntza-tresnak (HAEE)
- Barneko izapideak eta informazioa
- Komunikazio ez-formala
- honako azpi-proiektu hauek ditu proiektu horrek:

Honako hauek dira proiektuaren azpi-proiektuak:
4.3.1. Hasierako proiektua
4.3.1. Bulego teknikoa
4.3.2. Atarien azpiegitura prestatu
4.3.3. Integrazioa, migrazioa eta edukiak sortu
4.3.4. Elkarlanerako tresnak
4.3.5. Kudeaketa-protokoloa zehaztu

## Arduraduna:

Justizia eta Herri Administrazio Saila - HAZ

## Parte-hartzaileak:

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoa

## Lanak burutzeko epea:

2011ko urtarriletik 2012ko abendura

# 5. ildoa: Herritarren arreta

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

**5.1. Sailen eta Herritarrei Arreta emateko Zuzendaritzaren arteko gaur egungo ereduaren bilakaera**
5.2. Komunikazio- eta kontzientziazio-kanpaina (barruan eta kanpoan)
5.3. Aldaketa kudeatzeko informazioa eta talentuaren kudeaketa bermatuko dituen etengabeko trebakuntza
5.4. Herritarren Arretako prozesuak diseinatu eta birdiseinatu
5.5. Erakunde Autonomoetan, Sozietate Publikoetan eta abarretan txertatu Eusko Jaurlaritzaren gaur egungo Herritarren Arreta-eredua
5.6. Enpresen harretarako leihatila bat ezartzeko bideragarritasun-azterketa

## Helburuak

- Batez beste, 10etik 6ko puntuazioa lortzea Zuzenean zerbitzuaren erabiltzaileen artean
- Herritarren Arretaren eta Sailen arteko plangintza koordinatua areagotzea, herritarrei zuzendutako komunikazioen edo kanpainen inguruan
- Herritarren arretari erantzuteko (ezagueraren kudeatzailea) euskarriko informazioa optimizatzea
- Herritarren arreta egiten den arloetako informazio-sistemetarako eskuragarritasun-maila areagotzea
- Herritarrekiko komunikazioan, hizkera erraztea
- Zuzenean zerbitzuan, bertaratzeko bidea gutxiago erabiltzea
- Webeko edukien kudeatzailean informazioa bilatzeko denbora murriztea
- Komunikazioen edukia argitzeko kontsultak murriztea

## Deskribapena:

Sailen eta Herritarren Arretaren arteko harreman-eredua birdefinitu nahi du proiektuak, herritarrei zerbitzu hobea eskaintzeko.

Honako hauek dira proiektuaren azpi-proiektuak:
5.1.1. Sailen eta Herritarrei Arreta emateko Zuzendaritzaren arteko gaur egungo harreman-eredua birdiseinatu eta sustatu.
5.1.2. Informazio optimizatu, web edukien kudeatzaile batean.
5.1.3. Administrazioak herritarrekin harremana izateko erabiltzen duen hizkera erraztu.
5.1.4. Herritarrei Arreta emateko Zerbitzuaren kontrola eta jarraipena.

## Arduraduna:

Herritarrei Arreta emateko Zuzendaritza

## Parte-hartzaileak:

Denak

## Lanak burutzeko epea:

2011ko urtarriletik 2012ko maiatzera

5.1. Sailen eta Herritarrei Arreta emateko Zuzendaritzaren arteko gaur egungo ereduaren bilakaera
**5.2. Komunikazio- eta kontzientziazio-kanpaina (barruan eta kanpoan)**
5.3. Aldaketa kudeatzeko informazioa eta talentuaren kudeaketa bermatuko dituen etengabeko trebakuntza
5.4. Herritarren Arretako prozesuak diseinatu eta birdiseinatu
5.5. Erakunde Autonomoetan, Sozietate Publikoetan eta abarretan txertatu Eusko Jaurlaritzaren gaur egungo Herritarren Arreta-eredua
5.6. Enpresen harretarako leihatila bat ezartzeko bideragarritasun-azterketa

## Helburuak

- Batez beste, 10etik 6ko puntuazioa lortzea Zuzenean zerbitzuaren erabiltzaileen artean
- Herritarren gogobetetasuna hobetzea
- Herritarren Arretaren eta Sailen arteko plangintza koordinatua areagotzea, herritarrei zuzendutako komunikazioen edo kanpainen inguruan

## Deskribapena:

Herritarren Arretaren helburuetako bat da beste bide batzuetatik eskura daitezkeen zerbitzu gehiago izatea. Beraz, BPParen testuinguruan, eta zehatzago Herritarren Arretaren esparruan, Eusko Jaurlaritzako langileei nahiz herritarrei zuzendutako komunikazio-plan bat egin behar da, bertaratzearen bidea ez ezik gainerako bideak ere erabiltzea bultzatzeari begira.

Bestalde, Herritarren Arreta egiteko, sailen eta Zuzenean-en arteko harreman-eredu berria ezartzeko prozesuan, beharrezkoa da ezarpen horri lagunduko dion barne-komunikazioko kanpaina bat bultzatzea.

Azpimarratu egin behar dugu barne-kanpaina horretan, Eusko Jaurlaritzako Administrazioa herritarrei hurbiltzeko prozesuan, Herritarren Arretarako zerbitzuak funtsezko eginkizuna duela. Beraz, zerbitzu horiek funtsezko zeregina dute herritarrek parte hartzen duten prozesuak definitu eta aldatzeko unean.

## Arduraduna:

Herritarrei Arreta emateko Zuzendaritza

## Parte-hartzaileak:

Denak

## Lanak burutzeko epea:

2011ko martxotik 2013ko abendura

5.1. Sailen eta Herritarrei Arreta emateko Zuzendaritzaren arteko gaur egungo ereduaren bilakaera
5.2. Komunikazio- eta kontzientziazio-kanpaina (barruan eta kanpoan)
**5.3. Aldaketa kudeatzeko informazioa eta talentuaren kudeaketa bermatuko dituen etengabeko trebakuntza**
5.4. Herritarren Arretako prozesuak diseinatu eta birdiseinatu
5.5. Erakunde Autonomoetan, Sozietate Publikoetan eta abarretan txertatu Eusko Jaurlaritzaren gaur egungo Herritarren Arreta-eredua
5.6. Enpresen harretarako leihatila bat ezartzeko bideragarritasun-azterketa

## Helburuak

- Batez beste, 10etik 6ko puntuazioa lortzea Zuzenean zerbitzuaren erabiltzaileen artean
- Herritarren gogobetetasuna hobetzea
- Herritarren arreta burutzeko euskarriko informazioa optimizatzea (ezagueraren kudeatzailea)
- Herritarrekiko komunikazioan, hizkera erraztea.

## Deskribapena:

Sailen eta Herritarren Arretaren arteko harreman-eredu horri laguntzeko, beharrezkoa da aldaketa kudeatzeko plan bat egitea, bertan informazio- eta komunikazio-ekintzak jasotzeko, batez ere. Pertsonak aldaketen aurrean uzkur agertzeko arriskua murrizten lagundu behar dute ekintza horiek.

Nolanahi ere, komunikazio- eta informazio-ekintza horiek ezin dira aldian aldikoak izan; aitzitik, 5.1. proiektuaren (Sailen eta Herritarrei Arreta emateko Zuzendaritzaren arteko gaur egungo harreman-ereduaren bilakaera) ekimenak burutzen diren aldi osoan zehar egin beharko dira.

Beste aldetik, ezinbestekoa da Zerbitzuan talentua mantentzeko behar diren mekanismoak definitzea. Horretarako, denboran jarraitua izango den trebakuntza-plana zehaztuko da, herritarren arretan ahalik eta zerbitzu hoberena eskaintzeko behar diren gaitasunak eta ezaguera egokiak sustatzeko.

## Arduraduna:

Herritarrei Arreta emateko Zuzendaritza

## Parte-hartzaileak:

Denak

## Lanak burutzeko epea:

2011ko martxotik 2013ko abendura

5.1. Sailen eta Herritarrei Arreta emateko Zuzendaritzaren arteko gaur egungo ereduaren bilakaera
5.2. Komunikazio- eta kontzientziazio-kanpaina (barruan eta kanpoan)
5.3. Aldaketa kudeatzeko informazioa eta talentuaren kudeaketa bermatuko dituen etengabeko trebakuntza
**5.4. Arretako prozesuak diseinatu eta berriz diseinatu**
5.5. Erakunde Autonomoetan, Sozietate Publikoetan eta abarretan txertatu Eusko Jaurlaritzaren gaur egungo Herritarren Arreta-eredua
5.6. Enpresen harretarako leihatila bat ezartzeko bideragarritasun-azterketa

## Helburuak

- Batez beste, 10etik 6ko puntuazioa lortzea Zuzenean zerbitzuaren erabiltzaileen artean
- Herritarren Arretaren eta Sailen arteko plangintza koordinatua areagotzea, herritarrei zuzendutako komunikazioen edo kanpainen inguruan
- Herritarren arreta burutzeko euskarriko informazioa optimizatzea (ezagueraren kudeatzailea)
- Herritarren arreta egiten den arloetako informazio-sistemetarako eskuragarritasun-maila areagotzea
- Eskura dituzten bideetatik parte hartzen duten herritarren kopurua handitzea
- Pertsonen % 60ri 10 minututan edo gutxiagotan arreta eskaintzea. Gainerako % 40ari, 30 minutu baino denbora laburragoan
- Deien % 60 hartzea

## Deskribapena:

Herritarrei Arreta emateko Zuzendaritzaren premisetako bat da Herritarren Arretari Kalitatea eranstea, eta, horretarako, zerbitzu-karta bat egiten ari da. Garrantzitsua da herritarren aurreikuspenak areagotzea eta beraien gogobetetasuna hobetzea. Zerbitzuen Karta osatzeko, Eusko Jaurlaritzako Zerbitzu guztien parte-hartzea bultzatu nahi da.

Helburu hori lortzeko, ezinbesteko baldintza da Herritarren Arreta Zerbitzuaren jarduera arautzen duten prozesuak zehaztu eta birdiseinatzea, horri esker, barne-harremanetan nahiz herritarrekiko harremanean eraginkorragoak izateko.

Jarduera optimizatzeko prozesuen zehaztapen horretan, zerbitzuen katalogoa eta zerbitzu horiek zein bidetatik eskuratuko diren zehaztu beharko da, argi eta garbi.

## Arduraduna:

Herritarrei Arreta emateko Zuzendaritza

## Parte-hartzaileak:

Z/G

## Lanak burutzeko epea:

2012ko urtarriletik 2013ko abendura

5.1. Sailen eta Herritarrei Arreta emateko Zuzendaritzaren arteko gaur egungo ereduaren bilakaera
5.2. Komunikazio- eta kontzientziazio-kanpaina (barruan eta kanpoan)
5.3. Aldaketa kudeatzeko informazioa eta talentuaren kudeaketa bermatuko dituen etengabeko trebakuntza
5.4. Herritarren Arretako prozesuak diseinatu eta birdiseinatu
**5.5. Erakunde Autonomoetan, Sozietate Publikoetan eta abarretan txertatu Eusko Jaurlaritzaren gaur egungo Herritarren Arreta-eredua**
5.6. Enpresen harretarako leihatila bat ezartzeko bideragarritasun-azterketa

## Helburuak

- Batez beste, 10etik 6ko puntuazioa lortzea Zuzenean zerbitzuaren erabiltzaileen artean
- Eusko Jaurlaritzako Administrazioa herritarrei hurbiltzea
- Zuzenean sartutako Sail/Erakundeen kopurua handitzea

## Deskribapena:

Lehen fasean, Sailen eta Herritarren Arretaren arteko harremana sendoa izateko behar diren oinarriak sortzera bideratu da ahalegina, gero Eusko Jaurlaritzako beste erakunde batzuetara zabaltzekotan.

Ereduaren bilakaera burututa dagoela, hori zabaldu eta Herritarren Arretarako Eusko Jaurlaritzaren Administrazio bakarra sortzeko ordua heldu da.

## Arduraduna:

Herritarrei Arreta emateko Zuzendaritza

## Parte-hartzaileak:

Denak

## Lanak burutzeko epea:

2013ko urtarriletik 2013ko uztailera

# 05.- Herritarren arreta

5.1. Sailen eta Herritarrei Arreta emateko Zuzendaritzaren arteko gaur egungo ereduaren bilakaera
5.2. Komunikazio- eta kontzientziazio-kanpaina (barruan eta kanpoan)
5.3. Aldaketa kudeatzeko informazioa eta talentuaren kudeaketa bermatuko dituen etengabeko trebakuntza
5.4. Herritarren Arretako prozesuak diseinatu eta birdiseinatu
5.5. Erakunde Autonomoetan, Sozietate Publikoetan eta abarretan txertatu Eusko Jaurlaritzaren gaur egungo Herritarren Arreta-eredua
5.6. Enpresen harretarako leihatila bat ezartzeko bideragarritasun-azterketa

## Helburuak

- Enpresen harretarako leihatila bat ezartzeko bideragarritasun-azterketa

## Deskribapena:

Ekimena zera da: "enpresen harretarako leihatila bat" ezartzeko bideragarritasun-plana egitea. Hau da, enpresei era integralean eusteko aukera emango duen giza baliabide eta baliabide teknikoen multzoa, sor daitezkeen arazo tekniko nahiz funtzional guztiak kudeatu eta irtenbidea emateko. Garrantzitsua da hori guztia ikuspegi orokora batetik hartzea. Ikuspuntu tekniko eta funtzional batetik eutsi eta lagundu behar da, erakunde bakar batetik.

Honako puntu hauek izango ditu kontuan azterketak:

- Antolakuntza-eredua: behar diren baliabideak identifikatu, ardurak identifikatu eta eginkizunak esleitu…
- Ikuspegi orokorraren zehaztapena: Zuzenean-ekin integrazioa, espezializazio-mailak, etab.
- Horri eutsiko dioten bideak: bertaratuta, online, telefono bidez, intranet, iragarki-taula…
- Behar diren tresna teknikoak
- Ekimena praktikara eraman nahi izanez gero, horretarako Hedapen Plana.

## Arduraduna:

Justizia eta Herri Administrazio Saila - BAEZ

## Parte-hartzaileak:

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoa

## Lanak burutzeko epea:

2011ko otsailetik 2011ko maiatzera

# 6. ildoa: Gardentasuna eta parte-hartzea

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

**6.1. Gobernuaren jardueraren inguruko gardentasuna hobetu**
6.2. Gardentasunari buruzko jardueren jarraibide erkideak zehaztu
6.3. Parte hartzeko protokoloa, kide anitzeko organoen bidez eta informazio publikoko izapideen bidez
6.4. Herritarren parte-hartzerako esperientziak, legezko ekimenetan eta plangintza estrategikoetan
6.5. Irekia-ren bilakaera
6.6. OpenDataren bilakaera

## Helburuak

- Gardentasun-tasaren % 90 betetzea
- Gobernuaren jardueraren berri ematea, herritarrek jasotzen dituzten ondasun eta zerbitzuekin identifikatzeko modukoak diren helburu eta onuren lorpenei dagokienez
- Gaur egun herritarrek duen ezaguera handitzea, oinarritutako konparatiboa egin eta haren onurak bikoizteko aukera emango duten beste erabilera batzuk ahalbidetzeko
- Aurretik aipaturiko helburuak lortzeko bultzada ematea, informazioa hartzaileari egokitzeko ahalegina eginez, hizkerari, aurkezpenari, kokapenari eta eguneratzeari dagokionez, ahaleginean nahiz edukiaren eskuragarritasunean

## Deskribapena:

- Kudeaketan bikaina den antolakuntzaz ari garenean, zertaz ari garen zehaztea
- Horri eutsiko dioten tresna teknologiko eta metodologikoak zehaztea
- Esparru orokorra zabaltzea

## Deskribapena:

Proiektu honen helburua da Kudeaketan Bikaintasuna lortzeko Esparru Orokorra diseinatzea, zehaztuz zer den antolakuntza bikaina eta nola sustatuko dugun gure antolakundeek Bikaintasuna Kudeaketan izatea lortzea, era malguan eta erakunde bakoitzaren egoerari egokituta.

Esparru horren helburua da:

- Bikaintasuna Kudeaketan eskuratu nahi duten zerbitzuentzat erreferentzia izatea,
- borondatez betetzea,
- malgua izatea,
- aldaketa sustatzea, eta
- zerbitzuak eskaintzean eta Eusko Jaurlaritzako Administrazioaren barne kudeaketan bikaintasuna sustatzea

Azken batean, esparru horrek jarraitu beharreko oinarrizko printzipioak zehaztu beharko ditu: zer izango den eta nola egingo den. Gainera azpimarratu egin behar da herritarrei zuzenduta egotearen premia.

## Arduraduna:

BAEZ

## Parte-hartzaileak:

EAEko Sail eta Erakunde Autonomo guztiak

## Lanak burutzeko epea:

2011ko uztailetik 2011ko abendura

# 10.- Bikaintasuna kudeaketan


10.1. Gaur egungo egoera aztertu Bikaintasuna Kudeaketan alorrean
10.2. Bikaintasunera jotzeko Sustapen Esparru Orokorra zehaztu
**10.3. Bikaintasuna Kudeaketan Sustatzeko Esparru Orokorra abian jartzeko Ekintza Plana**
10.4. Administrazio-kargak murrizteko plana


## Helburuak

- Sail eta Erakunde Autonomo guztiak inplikatzea Plana egiteko lanean
- Unitate administrazio guztien parte-hartzea sustatzea, bikaintasunerantz jotzea ahalbidetuko duten ekintzak egin ditzaten
- Pilotuak garatzea, gainerako erakundeentzat erreferentzia izan daitezen
- Ekintza Plana zabaltzea
- 5 ekimen pilotu sartzea, gutxienez
- Hedapenerako eta erakundeak kaptatzeko 6 ekintza egitea, gutxienez

## Deskribapena:

Borondatez proiektuan sartu diren unitate administratiboek bikaintasuna kudeaketan lortzen lagunduko duten sentsibilizazio eta prestakuntza-ekintzak jasoko dituen Plan bat egin eta ezarri, 2011., 2012. eta 2013. urteetarako diseinatutako Esparru Orokorrarekin bat, eta denboran jarraitutasuna izateko asmoz, Berrikuntza Publikoaren Planaren iraunaldia amaitu eta gero ere.

Honako hauek hartzen ditu proiektuaren esparru funtzionalak:

- Aitzindaritza eta politikak
- Antolakuntza eta egitura
- Plangintza- eta kontrol-sistemak
- Iraunkortasun ekonomikoa eta kontrola (Eraginkortasun eta Austeritate Planak)
- Ingurumen-iraunkortasuna
- Gizarte-iraunkortasuna
- Prozesukako kudeaketa
- Hobekuntza-ekipamenduak
- Barne koordinazioa
- Administrazioen arteko lankidetza
- Bezeroen gogobetetasunaren ebaluazioa
- Zerbitzuen kalitatearen ebaluazioa
- Trebakuntza bikaintasun-eremuetan
- Zerbitzu-gidak
- Kudeaketa-sistemak: EFQM, ISO, 5S, …
- Ezagutze-programak

## Arduraduna:

BAEZ

## Parte-hartzaileak:

EAEko Sail eta Erakunde Autonomo guztiak

## Lanak burutzeko epea:

2012ko urtarriletik 2012ko apirilera

# 10.- Bikaintasuna kudeaketan

10.1. Gaur egungo egoera aztertu Bikaintasuna Kudeaketan alorrean.
10.2. Bikaintasunera jotzeko Sustapen Esparru Orokorra zehaztu
10.3. Bikaintasuna Kudeaketan Sustatzeko Esparru Orokorra abian jartzeko Ekintza Plana
10.4. Administrazio-kargak murrizteko plana

## Helburuak

- Enpresen gaineko administrazio-kargak % 30 murriztea.

## Deskribapena:

Gaitzen duten baimen, lizentzia eta beste tituluen erregimenaren ordez, geroago baieztatzeko aukera emango duen aurretiko jakinarazpen-sistema ezarri. Horretarako, honako neurri hauek proposatzen dira, besteak beste:

•Gaitzen duten baimen, lizentzia eta beste tituluen erregimenaren ordez, geroago baieztatzeko aukera emango duen aurretiko jakinarazpen-sistema ezarri.
•Dokumentazioa eman edo eskaerari eransteko derrigorraren ordez, geroago baiezta litezkeen adierazpen arduratsuak erabili.
•Baimenak, lizentziak eta abar, automatikoki edo era proaktiboan berritu.
•Gutxieneko mugak ezarri, eta horien azpitik ez da izango administrazio-karga betetzeko derrigorrik.
•Datuak edo agiriak aurkeztu beharreko maiztasuna murriztu.
•Baimen, lizentzia, erregistroetan izen-emate eta abarren baliotasun-epea zabaldu.
•Ezereztu edo aldatzen diren administrazio-kargen berri eman.
•Laguntzako arauren bat sortzeko aukera ere aztertu.

## Arduraduna:

Justizia eta Herri Administrazio Saila - BAEZ

## Parte-hartzaileak:

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoa

## Lanak burutzeko epea:

2011ko otsailetik 2011ko urrira

# 11. ildoa: Antolakuntza eta giza baliabideak

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

# 11.- Antolakuntza eta giza baliabideak

**11.1. Eusko Jaurlaritzaren Antolakuntza Gidaliburua egin**
11.2. Zuzendari Publiko Profesionalaren figura aztertu
11.3. Zeharkako antolakuntza-egitura bat zehaztu eta ezarri, Administrazio Elektronikoari eutsi eta antolakuntzaren hobekuntza eta berrikuntza sustatzeko
11.4. Lanpostuen profilak Administrazio Elektronikoaren eskakizunei egokitu

## Helburuak

- Eusko Jaurlaritzaren antolakuntza-diseinuaren oinarri orokorrak finkatuko dituen Antolakuntza Gidaliburua egitea.

## Deskribapena:

Eusko Jaurlaritzako hierarkia-maila guztien antolakuntza Gidaliburua egin, Eusko Jaurlaritzako Sail eta Erakunde Autonomo guztientzat.
Gidaliburu horren bidez, honako mugarri hauek lortu nahi dira:

- Antolakuntza-diseinurako irizpide orokor eta azterketa-metodologia erkideak ezarri EAEko Administrazio Orokor osorako.
- Egitura organikoa eta funtzionala duten Dekretu Proiektuak egiteko tresna-euskarri bat jarri Sail eta Erakunde Autonomoen eskura.
- Sailen artean izaera horizontaleko eginkizunei eusten dioten eta Eusko Jaurlaritzako lurralde-egituraren barruan dauden egiturak arrazionalizatu.

## Arduraduna:

Berrikuntzaren eta Administrazio Elektronikoaren Zuzendaritza

## Parte-hartzaileak:

- Funtzio Publikoaren Zuzendaritza
- Hezkuntza Saila
- Justizia Saila
- Osasun Saila
- Herrizaingo Saila
- Industria Saila
- HAEE

## Lanak burutzeko epea:

2011ko urtarriletik 2011ko abendura

# 11.- Antolakuntza eta giza baliabideak

11.1. Eusko Jaurlaritzaren Antolakuntza Gidaliburua egin
**11.2. Zuzendari Publiko Profesionalaren figura aztertu**
11.3. Zeharkako antolakuntza-egitura bat zehaztu eta ezarri, Administrazio Elektronikoari eutsi eta antolakuntzaren hobekuntza eta berrikuntza sustatzeko
11.4. Lanpostuen profilak Administrazio Elektronikoaren eskakizunei egokitu

## Helburuak

- Lanpostu horren izaera zehaztea, izendatutako teknikari eta karguak direla-eta.
- Haren eginkizunak diseinatzea
- Gaur egungo Administrazio Korporatiboaren antolakuntza-egituran kokatzea eta sortzeko irizpideak finkatzea
- Aurreikusi, jarduera ebaluatu eta jarduna amaitutzat emateko irizpideak identifikatzea

## Deskribapena:

2007an Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutua kaleratu ondoren, eta Euskal Funtzio Publikoaren legea ziur aski onartu egingo dela eta, ezinbestekoa da Zuzendari publiko profesionalaren figura diseinatu eta kokatzea. Euskadiko Administrazio Orokorraren gaur egungo antolakuntzan, figura hori non kokatuko den; haren eginkizunak; aurreikusteko irizpideak; jarduneko neurria; eta amaitzeko irizpideak finkatu behar dira.

## Arduraduna:

- Funtzio Publikoko Sailburuordetza
- Lehendakaritza

## Parte-hartzaileak:

- Funtzio Publikoaren Zuzendaritza
- HAEE
- EUSTAT

## Lanak burutzeko epea:

2011ko urtarriletik 2011ko abendura

# 11.- Antolakuntza eta giza baliabideak

11.1. Eusko Jaurlaritzaren Antolakuntza Gidaliburua egin
11.2. Zuzendari Publiko Profesionalaren figura aztertu
**11.3. Zeharkako antolakuntza-egitura bat zehaztu eta ezarri, Administrazio Elektronikoari eutsi eta antolakuntzaren hobekuntza eta berrikuntza sustatzeko**
11.4. Lanpostuen profilak Administrazio Elektronikoaren eskakizunei egokitu

## Helburuak

- Figurak eta mailak, mendekotasun hierarkikoak eta funtzionalak, eta koordinazio-mekanismoak zehaztea.
- Eginkizunaren eta funtzioen garapena, postuaren, prozesu operatiboen eta kudeaketa-prozesuaren arabera.
- Eredu berriaren dimentsionamendua: zenbat pertsona Sail bakoitzeko, eta baliabideak esleitzea.
- Plangintza eta pixkanakako ezarpena.
- 5 zeharkako prozesu aztertu eta diseinatzea, gutxienez.

## Deskribapena:

Eusko Jaurlaritzaren antolakuntza egitura-mailan egokitu: arloak premien arabera dimentsionatu, zeharkako funtzioen premiei arreta eginez. Honako hauek, besteak beste:

- Sailetako gaikako web-ak: horiek sortzen diren unetik, beharrezkoa da lanpostuak lan-eginkizun berrietara egokitzea, bai argitaratu edo nabarmendu nahi diren edukien inguruko erabakiei dagokienez, berrikuntzei eta lehentasunei dagokienez, egoitza elektronikotzat ezartzen denaren kontrolari dagokionez, aurkezpena mantentzeari dagokionez eta postakutxen, blogen, foruen, eta abarren erantzun eta bitartekaritzari dagokionez. Hau da, Interneteko presentzian antolakuntzaren eraginkortasuna hobetu.
- Izapidetze telematikoari eusteko behar diren kokapenak, eta Planaren ondorio izango diren zerbitzu eta prozesu berriak abian jarri.
- Eusko Jaurlaritzako berrikuntza-prozesuak, lan-taldeak eta tresnak zehaztu, sustatu eta gauzatzeko beharrezkoak diren kokapenak.
- Antolakuntzari, kalitateari, politika publikoen ebaluazioari eta BPPko gainerako lan-ildoak bermatzeko behar izango diren gainerako zeharkako eginkizunak.

## Arduraduna:

- Funtzio Publikoa
- HAZ
- BAEZ

## Parte-hartzaileak:

- Eusko Jaurlaritzako Sail guztiak

## Lanak burutzeko epea:

2011ko urtarriletik 2012ko abendura

11.1. Eusko Jaurlaritzaren Antolakuntza Gidaliburua egin
11.2. Zuzendari Publiko Profesionalaren figura aztertu
11.3. Zeharkako antolakuntza-egitura bat zehaztu eta ezarri, Administrazio Elektronikoari eutsi eta antolakuntzaren hobekuntza eta berrikuntza sustatzeko
**11.4. Lanpostuen profilak Administrazio Elektronikoaren eskakizunei egokitu**

## Helburuak

- Eragina jasango duten kokapenak edukidun postuz eta ardura horiek eskatzen duten legitimotasunez hornitzea.
- Postu horien antolakuntza ardura berrietara egokitutako postuez diseinatzea.
- Ezartzeko plana.
- Kolektibo bakoitzerako adierazgarria den lagin-pilotua ezartzea.
- LPZ birdiseinatzea, gutxienez 20 postutan.

## Deskribapena:

Administrazio elektronikoa ez ezik, langileen berrikuntza- eta hobekuntza-gaitasuna garatuz, antolakuntza bera ere aldatu eta herritarrei bideratu nahi baditugu, horrek administrazioaren kokapenak berrikusteko premia dakar, eta bi ikuspuntutatik:

- Administrazio elektronikoaren eta berrikuntza- eta hobekuntza-prozesuen ondorioz datozen ardura eta prozesu berriak
- Ardura berrien ondorioz, teknikari- eta zuzendari-postuetan eskatutako ardura berriak
- Postu horiek eskatzen dituzten trebetasun eta ezagutza berriak
- Eragindako kolektiboen artean, aparteko garrantzia dute administrarien eta laguntzaileen kolektiboek, langileen % 40 direlako eta Administrazio Elektronikoaren eragin zuzena jasango dutelako

## Arduraduna:

Funtzio Publikoa

## Parte-hartzaileak:

- Funtzio Publikoko Sailburuordetza

## Lanak burutzeko epea:

2011ko urtarriletik 2012ko abendura

# 12. ildoa: Sistema korporatiboak

**12.1. Eusko Jaurlaritzako ekonomia- eta finantza-sistemen bilakaera**
12.2. EAEko Administrazio Orokorraren Liburutegi Sistema
12.3. eFaktura - EJ
12.4. Gaur egungo LKB teknologia aurreratuagora migratzeko proiektua
12.5. EIZU: LKBaren bilakaera teknologikoa
12.6. Kontratazio publikoa Euskadin
12.7. Euskadiko Datu Espazialen Azpiegitura - Informazio Geografikoko Sistema abian jarri

## Helburuak

- Ekonomia, Finantza eta Aurrekontuaren Informazio-sistemak modernizatu eta merkatuko estandarrak erantsi, sistemek malgutasun eta arintasun handiagoa izan dezaten, geroz eta sakonagoak eta ugariagoak diren legezko aldaketei eta sistema horien kudeatzaile funtzionalen etorkizuneko eskakizunei erantzuna ematean.
- Funtzionamendu-eredu berri bat ezartzea, ekonomia eta finantza-jardueraren plangintza, egikaritza eta jarraipena egiteko, baliabide ekonomikoen eta gastuaren kontrolaren esleipen- eta kudeaketa-prozesuak hobetzeko asmoz.
- Ekonomia, Finantza eta Aurrekontuaren Informazio-sistemak modernizatu eta merkatuko estandarrak erantsi, sistemek malgutasun eta arintasun handiagoa izan dezaten, geroz eta sakonagoak eta ugariagoak diren legezko aldaketei eta sistema horien kudeatzaile funtzionalen etorkizuneko eskakizunei erantzuna ematean.

## Deskribapena:

Honako hauek egin:
•Euskal Autonomia Erkidegoko Administraziorako Ekononomia-Finantza eta Aurrekontuen Kudeaketan sistema berri bat ezarri, Autonomia Erkidegoen esparruan bere gaitasuna erakutsi duen ERP batean oinarrituta, eta produktua berariaz Espainiako Sektore Publikoan kokatuta egonik. Soluzio integratu horrek arlo horretako gaur egungo aplikazioak ordezteko eta funtzionalitate berriak eransteko aukera emango du.
•Aurrekontua egin eta argitaratu.
•Urte batzuetarako aurreikuspenak, argitalpenen modulua, Legebiltzarreko zuzenketen kudeaketa eta Eusko Jaurlaritzako Giza Baliabideen sisteman integratutako I. Atalaren modulua.
•Aurrekontuen Kontabilitatea.
•Aurrekontuari lotuta ez dauden eragiketak.
•Finantza-kontabilitatea.
•Kontabilitate analitikoa.
•Proiektuen plangintza, programazioa eta kudeaketa.
•Diruzaintzaren kudeaketa.
•Ibilgetua.
•Kontabilitate-espedientea.
•Sozietate Publikoen informazioaren baterakuntza eta Aginte Taula integrala.

## Arduraduna:

Herri Administrazio Sailburuordetza
Ekonomia, Aurrekontu eta Kontrol Ekonomikoaren Sailburuordetza

## Parte-hartzaileak:

- Administrazio Orokorra / Eusko Jaurlaritza

## Lanak burutzeko epea:

2011ko irailetik 2014ko martxora

# 12.- Sistema korporatiboak


12.1. Eusko Jaurlaritzako ekonomia- eta finantza-sistemen bilakaera

**12.2. EAEko Administrazio Orokorraren Liburutegi Sistema**

12.3. eFaktura - EJ

12.4. Gaur egungo LKB teknologia aurreratuagora migratzeko proiektua

12.5. EIZU: LKBaren bilakaera teknologikoa

12.6. Kontratazio publikoa Euskadin

12.7. Euskadiko Datu Espazialen Azpiegitura - Informazio Geografikoko Sistema abian jarri


## Helburuak

- Liburutegiak kudeatzeko antolakuntza-eredu berria diseinatzea
- Eusko Jaurlaritzaren Liburutegi guztiak bat egitea, arau nahiz teknologia aldetik
- Liburutegi-sare osora sarbide bakarra ezartzea, bilaketetan nahiz maileguetan
- Katalogo bakarra izatea, bibliografikoa nahiz autoritateena, katalogazio-lanetan bikoizketarik egon ez dadin
- Liburutegiak kudeatzeko politikak zehaztu eta ezartzea
- Absysnet ezarpen bakarra izatea, horrek erraztu egingo dituelako mantentze-teknikoa, bertsio-aldaketak, etab.

## Deskribapena:

Eusko Jaurlaritzako Sailen liburutegien liburutegi-sistema garatu eta bateratzeko proiektua. Eusko Jaurlaritzaren gaur egungo liburutegi-sarea oinarritzen den tresnaren bilakaera teknologikoari esker, Sarean integratutako liburutegi-sistema sortzeko aukera izango da. Informazioaren eta telekomunikazioen kudeaketa-tresnen bilakaera teknologikoari esker, posible da Sarean integratzea, baina horrekWeb teknologian oinarritutako Absysnet software berria ezartzea eskatzen du.

## Arduraduna:

- Justizia eta Herri Administrazio Saileko Baliabide Orokorren Zuzendaritza
- Sailen askoren arteko proiektu erkideak

## Parte-hartzaileak:

- Administrazio Publikoa (sailak)
- Erakunde autonomoek (horren eragina izango dutenak)

## Lanak burutzeko epea:

2011ko urtarriletik 2012ko otsailera

# 12.- Sistema korporatiboak


12.1. Eusko Jaurlaritzako ekonomia- eta finantza-sistemen bilakaera
12.2. EAEko Administrazio Orokorraren Liburutegi Sistema
12.3. eFaktura - EJ
12.4. Gaur egungo LKB teknologia aurreratuagora migratzeko proiektua
12.5. EIZU: LKBaren bilakaera teknologikoa
12.6. Kontratazio publikoa Euskadin
12.7. Euskadiko Datu Espazialen Azpiegitura - Informazio Geografikoko Sistema abian jarri


## Helburuak

- Faktura elektronikoak kudeatzeko antolakuntza-eredu berria diseinatzea
- EJ Sustatzailearentzako Intranet eta Internet frontala ekoizpenean ezartzea
- Sistema horizontal eta bertikalekin bategiteko eskakizunak identifikatzea
- Oinarrizko integrazio horizontalerako eskakizunak aztertu, diseinatu, garatu eta ezartzea
- Bezero eta hornitzaileekin pilotua - Zerbitzua abian jartzea
- Faktura elektronikoaren Plataforma eta zerbitzua zabaldu eta sustatzea

## Deskribapena:

Eusko Jaurlaritzan, fakturazio elektronikoaren zerbitzua abian jarri. EJIEn dagoen ekoizpeneko fakturazio elektronikoko plataformatik abiatuta, proiektuak bezero eta hornitzaileentzat fakturazio elektronikoko zerbitzu berri bat zehaztu, konfiguratu eta ezarri nahi du Erakunde Berri batentzat. Ikuspuntu horretatik, Erakunde Sustatzaile berriak abian jartzeko prozedura tekniko eta funtzionalak ezarriko ditu, eta zehazten diren antolakuntza-, trebakuntza- eta integrazio-premiak eta premia teknikoak garatuko ditu.

## Arduraduna:

- Kontrol Ekonomikoko Bulegoa (Ekonomia eta Ogasun Saila)
- Ekonomia eta Ogasun Sailaren LT

## Parte-hartzaileak:

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoa
Sail askoren arteko proiektu erkideak

## Lanak burutzeko epea:

2011ko urtarriletik 2011ko abendura

# 12.- Sistema korporatiboak

12.1. Eusko Jaurlaritzako ekonomia- eta finantza-sistemen bilakaera
12.2. EAEko Administrazio Orokorraren Liburutegi Sistema
12.3. eFaktura - EJ
**12.4. Gaur egungo LKB teknologia aurreratuagora migratzeko proiektua**
12.5. EIZU: LKBaren bilakaera teknologikoa
12.6. Kontratazio publikoa Euskadin
12.7. Euskadiko Datu Espazialen Azpiegitura - Informazio Geografikoko Sistema abian jarri

## Helburuak

- Makina-mailako bilakaera teknologikoa burutzea (sun solaris-etik hp-ra)
- Datu-eredurako Oracle bertsioa eguneratzea
- GIP/Nomina sistema mantentzea, EIZU ezarri bitartean
- EIZUren irismenetik kanpo gelditzen diren aplikazioak ostatatzea
- EIZU ezarri ondoren ere, historia 5 urtez mantentzea linean

## Deskribapena:

Proiektu honen eginkizuna da teknologia-migrazioko prozesua burutzea, horri esker, EIZU garatzen den bitartean GIP/Nomina datu-ereduari jarraipena emateko, bai eta EIZU ezarri ondoren ere, 5 urtez, historiaren tratamenduari dagokionez (nominen atzeraeraginaren kalkulua).
Gainera, EIZUren irismenetik kanpo gelditzen diren aplikazioak ostatatzea ere bada beraren helburuetako bat (adibidez, kanpokoen kudeaketa).

## Arduraduna:

Funtzio Publikoaren Sailburuordetza

EJIEren Laguntza Teknikoa

## Parte-hartzaileak:

Funtzio Publikoaren Zuzendaritza
Bulego Judizial eta Fiskalaren Zuzendaritza
Baliabide Orokorren Zuzendaritza
Lan Harremanen Zuzendaritza
EJIE: sistemak, ustiapena eta laguntza teknikoa

## Lanak burutzeko epea:

2011ko urtarriletik 2011ko abendura

# 12.- Sistema korporatiboak


12.1. Eusko Jaurlaritzako ekonomia- eta finantza-sistemen bilakaera
12.2. EAEko Administrazio Orokorraren Liburutegi Sistema
12.3. eFaktura - EJ
12.4. Gaur egungo LKB teknologia aurreratuagora migratzeko proiektua
12.5. EIZU: LKBaren bilakaera teknologikoa
12.6. Kontratazio publikoa Euskadin
12.7. Euskadiko Datu Espazialen Azpiegitura - Informazio Geografikoko Sistema abian jarri


## Helburuak

- Giza baliabideen kudeaketa optimizatzea
- EAEko 4 kolektiboei eragiten die: Administrazio Orokorra, Hezkuntza, Herrizaingoa eta Justizia
- Kudeaketa-eredu eta nukleo erkidea, baina kolektiboen berezitasunak kontuan hartzen dituena
- Datu bakarra: datua behin baino ez da sartuko eta leku bakarrean baino ez da gordeko.
- Parte hartzea eta informazioa enplegatuarengandik eta enplegatuarengana izan dadin sustatzea
- Bilakaera teknologikoa
- Produktuan oinarritutako ezarpena, neurrira garatu beharrean. SAP plataforma
- Giza baliabideak kudeatzeko prozedura guztiak digitalizatzea

## Deskribapena:

Soluzio integratu gisa, Euskal Autonomia Erkidegoko Administraziorako Giza Baliabideen sistema berri bat ezarri, SAP plataforman oinarrituta, gaur egungo Giza Baliabideen aplikazioak ordezteko eta funtzionalitate berriak eransteko aukera emango duena.

## Arduraduna:

Funtzio Publikoko Sailburuordetza

## Parte-hartzaileak:

Sektore guztietako Funtzio Publiko/Giza baliabideen Zuzendaritza guztiak
Sail eta Erakunde Autonomo guztietako zerbitzu zuzendaritzak
SAAS unitateak eta Ertzaintzaren polizia-etxeak
EAT unitateak eta Justizia Epaitegiak
Hezkuntzako Lurralde Ordezkaritzak
Ikastetxe publiko eta pribatuak

## Lanak burutzeko epea:

2011ko uztailetik 2013ko abendura

# 12.- Sistema korporatiboak


12.1. Eusko Jaurlaritzako ekonomia- eta finantza-sistemen bilakaera
12.2. EAEko Administrazio Orokorraren Liburutegi Sistema
12.3. eFaktura - EJ
12.4. Gaur egungo LKB teknologia aurreratuagora migratzeko proiektua
12.5. EIZU: LKBaren bilakaera teknologikoa
**12.6. Kontratazio publikoa Euskadin**
12.7. Euskadiko Datu Espazialen Azpiegitura - Informazio Geografikoko Sistema abian jarri


## Helburuak

- Elkarreragingarritasunaren eta izapidetze telematikoaren bidez, hirugarrenentzako kostuak murriztea (eraginkortasuna)
- Tresnak erakunde askotarako balio dutenez, administrazio publikoari kostuak murriztea ekarriko du
- Kontratu publikoen harira, Eusko Jaurlaritzak egiten dituen jardueren gardentasun gorena eskuratzea
- Prozedurak erraztea
- Enpresa-mota guztientzat kontratu publikoak eskuragarriago bihurtzea
- Interneten bidez lizitatzeko aukera ematen duten lehiaketak % 100 izatea

## Deskribapena:

Eusko Jaurlaritzaren kontratazio elektronikoaren ereduak honako hau nahi du: Sektore Publikoko Kontratuen Legeak zehazten dituen kontratu publikoen inguruan sortzen diren prozesu guztiak era elektronikoan eta telematikoan izapidetzeko aukera emango duten tresnak ematea. Administrazio publikoa nahiz euskal ehun produktiboa modernizatu eta eraginkorrago bihurtzeko, prozesu guztietan IKTak erabiltzea sustatu

Honako hauek dira proiektuaren azpi-proiektuak:
12.6.1. Kontratisten Erregistro Ofiziala
12.6.2. Enpresen sailkapena
12.6.3. INTENTIA: Enpresak Aldi baterako Gaitzea
12.6.4. Lizitazio Elektronikoa
12.6.5. Kontratazio Espedienteen Kudeatzailea
12.6.6. Kontratugilearen profila
12.6.7. Zerbitzu Publikoen kudeatzaile txikia
12.6.8. Elkarrizketa lehiakorra
12.6.9. Kontrataziorako sistema dinamikoak
12.6.10. Esparru-akordioak
12.6.11. Kontratuen erregistroa
12.6.12. Enkanteak

## Arduraduna:

Ekonomia eta Ogasun Saila

Sailen askoren arteko proiektu erkideak

## Parte-hartzaileak:

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoa

## Lanak burutzeko epea:

2011ko urtarriletik 2013ko abendura

12.1. Eusko Jaurlaritzako ekonomia- eta finantza-sistemen bilakaera
12.2. EAEko Administrazio Orokorraren Liburutegi Sistema
12.3. eFaktura - EJ
12.4. Gaur egungo LKB teknologia aurreratuagora migratzeko proiektua
12.5. EIZU: LKBaren bilakaera teknologikoa
12.6. Kontratazio publikoa Euskadin
12.7. Euskadiko Datu Espazialen Azpiegitura - Informazio Geografikoko Sistema abian jarri

## Helburuak

- Base Datu erkidea izatea, guztiok berrerabiltzeko modukoa. Bertan, funtsezkoa izango da informazioaren kalitatea, osotasuna eta harmonizazio-maila
- Elkarreragingarritasuna eta independentzia teknologikoa
- GeoEuskadiren bidez, informazioa hedatu eta eskuratzea
- Euskadiko Datu Espazialen Azpiegituraren informazio geografikoa eta zerbitzuak ezagutarazi eta erabilpena hedatzeko prestakuntza eta jardunaldiak

## Deskribapena:

Erakunde eta Lege askok, baina, batez ere, INSPIRE Europar Zuzentarauak eta Espainiako Informazio Geografikoari buruzko Azpiegiturei eta Zerbitzuei buruzko 14/2010 Legeak, berariaz arautzen dute informazio eta zerbitzu geografikoen lanketa eta hedapena, informazio geografikoa errazago eskuratu, berrerabili, eta arin eta eraginkortasunez eskuratzea bermatzeko asmoz. Honako hauek dira proiektu horren esparruak:

Informazio geografikoa berrerabili eta harmonizatu
Informazio geografikoa sortzea lan garestia da, eta neurri batean deszentralizatuta dago erakunde ekoizleen artean. Gainera, askotan eta askotan, asmo zehatz baterako sortzen den informazio geografikoak balio handia du hasieran sortutako helburuez beste helburu batzuetarako.

Ezinbestekoa da erakundeen arteko lankidetza, informazio-biltegi bakarra erabiliz, informazio hori hedatu eta berrerabiltzeko, bai eta erakundeen arteko koordinazioa ere, informazio geografikoa ekoizteko eta harmonizatzeko.

DEA baten gutxieneko zerbitzuak abian jarri
Egun dauden informazio geografikoak ezagutu, eta erraz kontsultatu eta behera kargatzeko aukera eman behar dute Euskadiko DEAren gutxieneko zerbitzuek. Zentzu horretan, dauden informazioak bildu eta metadatatzeaz gain, araudiak eta Geografia Kontseilu Nagusiak zehaztutako zerbitzu estandarrak eskaini behar ditu, informazio hori guztia hedatu eta eskuragarri jartzeko.

## Arduraduna:

Lurralde Antolakuntzako Zuzendaritza

## Parte-hartzaileak:

- Eusko Jaurlaritzako Sail guztiak

## Lanak burutzeko epea:

2011ko urtarriletik 2013ko abendura

# 13. ildoa: Azpiegitura teknologikoa

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

**13.1. EJIE/administrazioaren sare korporatiboaren datacenter-a monitoretu**
13.2. Gobernuaren informazio eta sistemen segurtasuna optimizatu eta hobetu
13.3. Eusko Jaurlaritzaren Telekomunikazio-zerbitzuen estrategia zehaztu
13.4. Estandar irekiak bultzatu
13.5. Cloud Computing
13.6. Kzguneak telezentroen euskal sare-publikoaren bilakaera

## Helburuak

- Datacenter-en operazio-prozesuen errendimendua optimizatu eta hobetzea
- Gaur egun intzidentziei erantzuteko behar den batez besteko denbora murriztea
- Datacenter-en kudeaketaren bilakaera, zerbitzuetara bideratutako kudeaketa baterantz
- Sistema-monitoretzaren esparrua indartzea
- Birtualizazioa ezarriz, Datacenter-en finkapen eta arrazionalizazio handiagoa lortzea
- Green IT politiken bidez, gizarte-konpromisoa eskuratzea
- Zerbitzuen finkapenen kostuak % 10 murriztea

## Deskribapena:

Eusko Jaurlaritza buru belarri sartuta dagoen modernizazio-prozesuari erantzuna ematea da proiektu honen eginkizuna. Administrazio moderno eta automatizatua izateko, ezinbestekoa da premia informatikoei erantzun eraginkor eta sendoa emango dien Datacenter-a izatea, beti ere herritarrei emaniko zerbitzua hobetzeko helburuarekin.

Honako hauek dira proiektuaren azpi-proiektuak:
13.1.1. Monitorizazioa
13.1.2. Aplikazioak ezartzeko tresna finkatu
13.1.3. Birtualizazioa
13.1.4. BPPko proiektu guztietarako oinarrizko ekipamendua
13.1.5. Negozioaren jarraitutasun-plana
13.1.6. Enpresa Green ITrako bilakaera
13.1.7. Bezero Korporatibo postuaren Sistemen bilakaera
13.1.8. EAEko Administrazioaren Sare Korporatiboaren kudeaketa
13.1.9. Kudeaketa hobetzeko informazio-sistema
13.1.10. Estandarrak berrikusi eta ekintza plana
13.1.11. Platea integratzeko soluzioa hobetu

## Arduraduna:

ITZ

EJIE:
•Sistemak eta Telekomunikazioak
•Ekoizpena

## Parte-hartzaileak:

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoa

## Lanak burutzeko epea:

2011ko urtarriletik 2013ko abendura

# 13.- Azpiegitura teknologikoa

- 13.1. EJIE/administrazioaren sare korporatiboaren datacenter-a monitoretu
- **13.2. Gobernuaren informazio eta sistemen segurtasuna optimizatu eta hobetu**
- 13.3. Eusko Jaurlaritzaren Telekomunikazio-zerbitzuen estrategia zehaztu
- 13.4. Estandar irekiak bultzatu
- 13.5. Cloud Computing
- 13.6. Kzguneak telezentroen euskal sare-publikoaren bilakaera

## Helburuak

- Eusko Jaurlaritzako aplikazioen kalitatea eta segurtasuna indartu eta optimizatzea
- Erabiltzaileen kontzientziazioa lortzea , informazioaren euskarri mugikorren inguruan
- Eusko Jaurlaritzako barneko erabiltzaileen erabilerraztasuna hobetzea
- Segurtasun Eskema Nazionala betetzea
- Segurtasun-intzidentziak % 10 murriztea

## Deskribapena:

Eusko Jaurlaritzaren segurtasun informatikoaren egoera hobetzea da proiektu honen helburua, jasotzen duen informazioari, azpiegitura teknologikoari eta erabiltzaileei dagokienez.

Horretarako, informazioaren euskarri mugikorrak babestera, kanpo zein barrurako azpiegituren sarbidearen kontrolatzera, aplikazioen segurtasuna babestera eta abarrera bideratutako ekimenak jarriko dira abian, beti ere erreferente eta bete beharreko helburu estrategikoa izanik PLATEAren segurtasun-gidaliburua eta Segurtasun Eskema Nazionala.

Honako hauek dira proiektuaren azpi-proiektuak:
13.2.1. Datu-baseen segurtasuna
13.2.2. Mugikortasun-soluzioak
13.2.3. Bidegabeko sartzeak antzeman eta prebenitzeko sistemen migrazioa
13.2.4. Segurtasun-kudeaketa
13.2.5. Segurtasun-arauetara egokitzeko plana
13.2.6. Identitateen kudeaketa-sistema eguneratu

## Arduraduna:

ITZ

EJIE:
•Sistemak
•Ustiapena

## Parte-hartzaileak:

Administrazio Korporatiboa

## Lanak burutzeko epea:

2011ko urtarriletik 2013ko abendura

# 13.- Azpiegitura teknologikoa

13.1. EJIE/administrazioaren sare korporatiboaren datacenter-a monitoretu
13.2. Gobernuaren informazio eta sistemen segurtasuna optimizatu eta hobetu
**13.3. Eusko Jaurlaritzaren Telekomunikazio-zerbitzuen estrategia zehaztu**
13.4. Estandar irekiak bultzatu
13.5. Cloud Computing
13.6. Kzguneak telezentroen euskal sare-publikoaren bilakaera

## Helburuak

- Eusko Jaurlaritza mugigarritasun-estrategiaz hornitzea
- Ahots eta Datuen eredu bat prestatzea
- Komunikazio-zerbitzu bateratuak inplementatzea
- JASO sarea birdefinitzea, araudiaren definiziorako oinarri tekniko gisa balio dezan
- Administrazio Sare Korporatiboaren kudeaketa egiteko aukera emango duen tresna eskaintzea Eusko Jaurlaritzari

## Deskribapena:

Gaur egun, Eusko Jaurlaritzak egoera heterogeneoak ditu, telekomunikazio-zerbitzuei dagokienez. Datozen hiru urteetan Eusko Jaurlaritzaren telekomunikazio-zerbitzuetarako estrategia zehaztea da proiektu honen eginkizuna. Horretarako, gaur egun sakabanatuta dauden alderdiak homogeneizatu beharko dira.

Hori burutzeko, hainbat ekimen egingo dira, hala nola Eusko Jaurlaritzaren Sarea zehaztea, Ahots eta Datuen zerbitzuen estrategia zehaztea, mugigarritasun-zerbitzuak zehaztea…

Honako hauek dira proiektuaren azpi-proiektuak:
13.3.1. Mugigarritasun-estrategia
13.3.2. EAEko Administrazio Publikoan, IP Ahots Zerbitzuen Eredua
13.3.3. Komunikazio bateratuak
13.3.4. JASO sarea birdefinitu

## Arduraduna:

ITZ

EJIE:
•Sistemak
•Ustiapena

## Parte-hartzaileak:

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoa

## Lanak burutzeko epea:

2011ko maiatzetik 2013ko ekainera

# 13.- Azpiegitura teknologikoa

- 13.1. EJIE/administrazioaren sare korporatiboaren datacenter-a monitoretu
- 13.2. Gobernuaren informazio eta sistemen segurtasuna optimizatu eta hobetu
- 13.3. Eusko Jaurlaritzaren Telekomunikazio-zerbitzuen estrategia zehaztu
- **13.4. Estandar irekiak bultzatu**
- 13.5. Cloud Computing
- 13.6. Kzguneak telezentroen euskal sare-publikoaren bilakaera

## Helburuak

- Berrikuntza-inguruak sustatutako software libreko edo estandar irekiko 6 aplikazio edo plataforma ezartzea, gutxienez, Eusko Jaurlaritzan
- Eusko Jaurlaritzaren 6 aplikagarriren kodea askatzea, gutxienez

## Deskribapena:

Proiektuaren asmoa da Eusko Jaurlaritzan estandar irekiak erabili eta ezartzea. Horretarako bideak honako hauek izango dira:

Aplikagarrien iturburu-kodea askatzea:

- EJIEn, askatzeko prozesuan laguntzeko metodologia eta baliabideak zehaztu.
- Askatutako softwarearen inguruan komunitateak sortu eta haien iraupena bultzatu.
- Askatzeko aukera duten aplikazioak identifikatu eta aukeratu.
- Aplikazioak askatu.
- Proiektuak identifikatu, kode-iturburu aske gisa gara daitezen.
- Aplikazio askeak sortzeko lankidetza-eremu bat sortu.

Neutraltasun teknologikoa sustatzeko Berrikuntza-eremu bat sortu:

- EJIEren barruan eremu egoki bat eskaini, estandar irekien teknologietan oinarritutako jarduerei ekin eta arintasunez laguntzeko.
- Planak zehaztu, zabaldu eta ebaluatu.
- Produktu zehatz batzuk ebaluatu.
- Homologatu, adibidez, hardwarea.
- Aholkularitza, adibidez tresna bat aukeratzeko.
- Behaketa eta Zaintza.
- Segurtasuna eta elkarreragingarritasuna.

## Arduraduna:

ITZ /EJIE

## Parte-hartzaileak:

Administrazio Orokorra / Eusko Jaurlaritza

## Lanak burutzeko epea:

2011ko urtarriletik 2013ko abendura

# 13.- Azpiegitura teknologikoa

- 13.1. EJIE/administrazioaren sare korporatiboaren datacenter-a monitoretu
- 13.2. Gobernuaren informazio eta sistemen segurtasuna optimizatu eta hobetu
- 13.3. Eusko Jaurlaritzaren Telekomunikazio-zerbitzuen estrategia zehaztu
- 13.4. Estandar irekiak bultzatu
- **13.5. Cloud Computing**
- 13.6. Kzguneak telezentroen euskal sare-publikoaren bilakaera

## Helburuak

- Proiektuak abian jartzeko arintasun handiagoa ematea
- ITak hornitzean malgutasun handiagoa ematea
- Erabilpenaren araberako tarifa ezartzeko aukera emango duen soluzio bat artikulatzea
- Epe ertain/luzera kostuak murriztea

## Deskribapena:

Eusko Jaurlaritzaren IT zerbitzuaren eraginkortasuna hobetu eta kalitatea eta estaldura areagotzea da proiektu honen asmoa. Horretarako, Clooud Computing-en oinarritutako kudeaketa-eredu baterako aldaketaren lehen urratsak ematea ahalbidetuko duten esperientziak jarri nahi dira abian.

Gaur egun EJIEk zerbitzuak eskaintzeko duen ereduak hainbat erronka ditu, eta horiei guztiei erantzuna eman behar zaie (proiektuak ezartzeko laguntza arindu, une puntualetan zerbitzuei baliabideak era dinamikoan eskaini, benetako erabileraren araberako tarifak ezarri, kostuak murriztu). Erronka horien aurrean, Cloud Computing-a agertzen da paradigma gisa, bai baliabide-kudeaketaren arintasunari dagokionez, bai une puntualetan baliabide gehiago esleitzeko aukerari dagokionez, bai kostuak murrizteari dagokionez.

Zentzu horretan, EJIErako Cloud Computing-en Ikuspegi Estrategikoa honako honetan oinarritzen da: “Eusko Jaurlaritzaren IT zerbitzuaren eraginkortasuna hobetu eta kalitatea eta estaldura areagotzea. Horretarako, Clooud Computing-en oinarritutako kudeaketa-eredu baterako aldaketaren lehen urratsak ematea ahalbidetuko duten esperientziak jarriko dira abian”.

Honako hauek dira proiektuaren azpi-proiektuak:
13.5.1. Kontratu/Antolakuntza Alorraren bilakaera
13.5.2. Birtualizazio Soluzioaren bilakaera
13.5.3. Proiektu Pilotuak Hodeian
13.5.4. Ikuspegi Horizontala

## Arduraduna:

- ITZ
- EJIE

## Parte-hartzaileak:

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoa

## Lanak burutzeko epea:

2011ko apiriletik 2012ko abendura

# 13.- Azpiegitura teknologikoa

13.1. EJIE/administrazioaren sare korporatiboaren datacenter-a monitoretu
13.2. Gobernuaren informazio eta sistemen segurtasuna optimizatu eta hobetu
13.3. Eusko Jaurlaritzaren Telekomunikazio-zerbitzuen estrategia zehaztu
13.4. Estandar irekiak bultzatu
13.5. Cloud Computing
**13.6. Kzguneak telezentroen euskal sare-publikoaren bilakaera**

## Helburuak

- Trebakuntza ahalbidetzea, pertsonen eta Administrazioaren arteko on-line harremana errazteari begira, Administrazio elektronikoaren garapenaren mesedetan (herritarrei zuzendutako Gobernuaren aplikazio berrien alorreko prestakuntza)
- Konputazio-sare herritarrekin (KSH) bategiteko ekipamendu informatikoa berrerabiltzea eta, horretarako, zientzia, teknologia eta ikerketa alorren arteko lankidetza sustatzea
- Gaur egun banatuta dauden zerbitzuak zentralizatzea, gobernu-sare guztien arteko sinergiak aprobetxatzeko

## Deskribapena:

2002-2005eko Euskadi Informazio Gizartean Planaren (EIGP) harira sortu zen KZgune telezentroen euskal sare publikoa EJIE Sozietate Informatikoari atxikita dago, kudeaketari dagokionez. Gaur egun, telezentro-sarearen erabilera eta zerbitzuak (eta beraz, infoegituraren euskarri diren komunikazio-sare eta azpiegiturak) bilakaera-fase berri batean sartu dira. Hain zuzen, Informazioaren Gizartearen hobekuntza izango da horren emaitza.

Alfabetatze digitalerako proiektu horrek, hasieratik bertatik, EUDELen laguntza jaso du, Euskadiko udalerri guztietan IKTen alorrean trebakuntza eta erabilera sustatzeko zentro publikoen doako sare bat abian jartzeko asmoz.

Horregatik, herritarrengandik “hurbil” dauden zentro gisa, KZek duten garrantziaz jabetuta, honako hau bultzatu nahi du Eusko Jaurlaritzak:

Zentro horien azpiegitura erabili, Administrazio Elektronikoa garatzeko.

- Zientzia-, teknologia- eta ikerketa-alorrean lankidetza sustatu
- Gaur egun banatuta dauden zerbitzuak zentralizatu, gobernu-sare guztien arteko sinergiak aprobetxatzeko
- Bultzada hori lortzeko, telezentro-sarearen erabilera eta zerbitzuak (eta, beraz, euskarri dituen komunikazio-sare eta -azpiegiturak) garatzeko premia antzeman da.

Bultzada hori lortzeko, telezentro-sarearen erabilera eta zerbitzuak (eta, beraz, euskarri dituen komunikazio-sare eta -azpiegiturak) garatzeko premia antzeman da.

## Arduraduna:

- ITZ
- EJIE

## Parte-hartzaileak:

Justizia eta Herri Administrazio Saila

## Lanak burutzeko epea:

2011ko apiriletik 2012ko abendura

# 14. ildoa: IT kudeaketa-eredua

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

# 14.- IT kudeaketa-eredua

**14.1. Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren IT Gobernu-eredua zehaztu, diseinatu eta ezarri**

14.2. Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoak IT zerbitzuen hornitzaileekin duen harreman-eredua zehaztu, diseinatu eta ezarri

14.3. Arrazionalizazioa eta finkapena: azpiegitura teknologiko, komunikazio eta prozesu korporatiboei buruzko azterketa eta ekintza-plana

## Helburuak

- Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren mailan, IKTen eskumen-eredua ezartzea (jarduera-esparrua, eginkizunak eta ardurak)
- IKTen esparruan, erabaki-eredu bat izatea, antolakunde osoan ezarrita, dagozkion prozesu guztiekin eta erabakiak hartzeko aukera emango duen tresna batekin (prozesua kudeatu eta ezagutzera eman)
- IT funtzio-eredu bat ezartzea, eraginkortasun eta eragingarritasun printzipioen arabera funtzionatuko duena, eta korporazioaren ikuspegitik "negozioaren" ezagueraren kudeaketa ezin hobea eta denboran irautea bermatuko dituena
- Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren IT Gobernuaren alderdi guztiak argi eta garbi arautuko dituen arau- eta lege-esparru bat izatea
- Urtean 25 milioi euro aurreztea IT kostuetan
- IT erabiltzaileen gogobetetasun-maila % 50 hobetzea

## Deskribapena:

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren IT Gobernu-eredua zehaztu, diseinatu eta ezartzea da proiektu honen eginkizuna. Gaur egungo egoeraren azterketa zehatza nahiz IT Gobernu-eredu baten zehaztapena eta diseinua, eta horren ezarpena ere hartzen ditu eredu horrek.

## Arduraduna:

## Parte-hartzaileak:

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoa

## Lanak burutzeko epea:

2011ko ekainetik 2013ko martxora

# 14.- IT kudeaketa-eredua

14.1. Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren IT Gobernu-eredua zehaztu, diseinatu eta ezarri

**14.2. Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoak IT zerbitzuen hornitzaileekin duen harreman-eredua zehaztu, diseinatu eta ezarri**

14.3. Arrazionalizazioa eta finkapena: azpiegitura teknologiko, komunikazio eta prozesu korporatiboei buruzko azterketa eta ekintza-plana

## Helburuak

- Orain arte eskainitako zerbitzuak, eta horiekiko dagoen gogobetetasun-maila identifikatzea
- EAEko Administrazio Publikoaren eta EJIEren artean dauden komunikazio-bideak identifikatzea
- EJIEren bilakaera, zerbitzu-hornitzaile gisa
- Harreman-eredu eraginkorragoa izatea, Eusko Jaurlaritzaren eskakizunei egokituago egongo dena
- Eusko Jaurlaritzaren premiei egokitutako orientazio eta zerbitzu-katalogo berri bat izatea
- Urtean 25 milioi euro aurreztea IT kostuetan
- IT erabiltzaileen gogobetetasun-maila % 50 hobetzea

## Deskribapena:

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren eta IT zerbitzu-hornitzailearen artean harreman-eredu berri bat eratu nahi du proiektu honek. Helburu nagusia zera da: gaur egungo erlazioa zehaztea, IT merkatuaren estandarrekin bat etorriko den etorkizuneko eredu baterako bidea finkatu ahal izateko.

## Arduraduna:

## Parte-hartzaileak:

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoa

## Lanak burutzeko epea:

2011ko ekainetik 2013ko martxora

14.1. Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren IT Gobernu-eredua zehaztu, diseinatu eta ezarri.
14.2. Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoak IT zerbitzuen hornitzaileekin duen harreman-eredua zehaztu, diseinatu eta ezarri.
14.3. Arrazionalizazioa eta finkapena: azpiegitura teknologiko, komunikazio eta prozesu korporatiboei buruzko azterketa eta ekintza-plana

## Helburuak

- Eusko Jaurlaritzaren teknologia- eta komunikazio-azpiegituren egoera zehazteko aukera emango duen azterketa bat egitea, eta horiek finkatu eta arrazionalizatzeko ekintza-plan bat ezartzea
- Eusko Jaurlaritzaren IT prozesu korporatiboen egoera zehazteko aukera emango duen azterketa bat egitea, eta horiek finkatu eta arrazionalizatzeko ekintza-plan bat ezartzea
- Urtean 25 milioi euro aurreztea IT kostuetan
- Gobernuaren gaur egungo komunikazio-sareak homogeneizatu eta optimizatzeko kudeaketa-bulego zentralizatua sortzea

## Descripción:

Eusko Jaurlaritzaren azpiegitura teknologikoen alorrean, baliabideak finkatzeko eta arrazionalizatzeko aukera emango duen azterketa eta ekintza-plana abian jartzea. Proiektuaren oinarrian, hasieran, hainbat azterketa egingo dira, gaur egungo egoeraren berri izateko. Horri esker, horiek finkatu eta arrazionalizatzeko aukera emango duen ekintza-plana bideratzeko proiekzioak egin ahal izango dira.

Komunikazioen alorrean, informatika- eta telekomunikazio-sare eta -azpiegituren egoera aztertuko da, eta prozesu korporatiboen alorrean, berriz, gaur egun dauden eginkizun eta operazio-prozesuak aztertuko dira.

Azterketa egin ondoren, Eusko Jaurlaritza zein egoeratan dagoen jakiteko informazio zehatz eta zuzena izango dugu, alde batetik, komunikazio eta azpiegituren alorreko erabilera eta baliabideei dagokienez, eta beste aldetik, sistemen ustiapenari dagokionez. Hortik aurrera, azpiegitura teknologikoak finkatu eta arrazionalizatzeko prozesua egiteko eta Eusko Jaurlaritza osorako operazio-eredu erkide eta orokorra egiteko ekintza-plan bat diseinatuko da.

Proiektuak honako azpi-proiektu hauek ditu:
14.3.1. Arrazionalizazioa eta finkapena: azpiegitura teknologikoen inguruko azterketa eta ekintza-plana
14.3.2. Komunikazioak eta azpiegiturak finkatu: azterketa eta ekintza-plana
14.3.3. Eusko Jaurlaritzako Telekomunikazio-zerbitzuak kudeatzeko bulegoa.

## Arduraduna:

ITZ

BAEZ:
•Sistemak eta Telekomunikazioak
•Ekoizpena

ITELAZPI

## Parte-hartzaileak:

EAEko Administrazio Publikoa

## Lanak burutzeko epea:

2011ko ekainetik 2013ko abendura

pip

plan de
innovación
pública

berrikuntza
publikoaren
plana

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO